

EMAKUMEEN KONTRAKO
INDARKERIAREN AURREAN
KOORDINATZEKO NAFARROAKO

ERAKUNDE ARTEKO III.
Akordioa

EMAKUMEEN KONTRAKO
INDARKERIAREN AURREAN
KOORDINATZEKO NAFARROAKO

ERAKUNDE ARTEKO III.
Akordia

Izenburua EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN
KOORDINATZEKO NAFARROAKO ERAKUNDE ARTEKO III.
AKORDIOA

Sustatzailea Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua
Egilea Instituto Navarro para la Igualdad / Nafarroako
Berdintasunerako Institutua

Asistentzia teknikoa Ibain Consultoría, S.L.

2017ko azaroa

LG: NA 201-2018

AURKIBIDEA



1. Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordina- tatzeko Nafarroako Erakunde arteko Akordioa	7
--	---



2. Jarduketa Bateraturako Protokoloa	21
--	----



3. Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Arretarako Baliabideak	65
--	----



I. Eranskina: Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Agerpenak eta Formak	83
---	----

1.

EMAKUMEEN KONTRAKO
INDARKERIAREN AURREAN
KOORDINATZEKO NAFARROAKO
ERAKUNDE ARTEKO III. AKORDIOA



AURKEZPENA

Mundu mailan aurrerapauso garrantzitsuak eman diren arren, emakumeen kontrako indarkeria fisikoak, psikologikoak, sexualak eta ekonomikoak, emakume izateagatik, milioika emakume eta nesken bizitzak baldintzatzen ditu oraindik ere mundu guztian. Oinarrizko giza eskubide horien urraketak historian zehar lana eman die nazioarteko organismoei eta herrialde askori; izan ere, badakite ezin dela Gobernu Onean oinarritutako eredu gobernagarri baterantz bidea egin, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna benetakoa eta eraginkorra ez den bitartean.

Erakundeentzat koordinazioa funtsezko elementuetako bat da indarkeria horri erantzuteko, arreta osoa, diziplina anitzekoa, sistematikoa eta iraunkorra izanen dela ziurtatzen baitu. Gainera, sektore guztietan indarkeriari buruzko legeak, politikak, protokoloak eta akordioak aplikatzeak hainbat erakundetako talde eta profesionalen elkarlana eskatzen du. Hain garrantzitsua denez, Nazio Batuek koordinazioa gutxieneko estandar gisa hartzen dute indarkeria jasaten duten emakumeei, neskei eta haien seme-alabei kalitatezko erantzun bat eman ahal izateko.

Esparru horretan, koordinazioa emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko eta arreta osoa emateko ezinbestekoa den heinean, Nafarroako Foru Komunitateak elkarlanerako hainbat akordio sinatu ditu azken hamabost urteotan. Helburua da emakumeen kontrako indarkeriaren arloan Nafarroan presentzia duten erakundeen esku-hartzea orientatzea, aholkatzea, osatzea eta homogeneizatzea, bikoiztasunak nahiz emakumeen birbiktimizazioa saihestuz. Hala, 2002an *etxeko tratu txarrak eta/edo sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeen arreta osorako Erakunde arteko I. Akordioa* sinatu zen. Ondoren, araudiaren garapenaren eta aurrerapen teknikoen nahiz sozialen ondorioz, 2010ean, *emakumeen kontrako indarkeria-kasuetako arreta eta prebentziorako koordinazio eraginkorrerako Erakunde arteko II. Akordioa* sinatu zen. Ildo horretatik, jarraian aurkeztuko den akordioak emakumeen kontrako indarkeriaren arloan azken urte hauetan egindako aurrerapenak bere baitan hartzen ditu; horien artean azpimarratzekoa da 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, emakumeen kontrako indarkeriari Nafarroan aurre egitekoa. Lege horren asmoa instituzioen lankidetzarako esparrua sortzea da, jarduketa berriak garatzeko.





NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

Iruñean, 2017ko azaroaren 24an.

BILDU DIRA:

Uxue Barkos Berruezo andrea, Nafarroako Gobernuaren izenean.

Carmen Alba Orduna andrea, Nafarroako Gobernuko Ordezkaritzaren izenean.

Joaquín Cristobal Galve Sauras jauna, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren izenean.

José Antonio Sánchez Sanchez-Villaré jauna, Nafarroako Foru Komunitatearen Fiskaltza Nagusiaren izenean.

Pablo Azcona Molinet jauna, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren izenean.

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

- 1 Emakumeen kontrako indarkeria, emakumeen diskriminazioan oinarritutakoa, **giza eskubideen urraketa** ohikoenetako bat da egungo gizartean. Abusu horiek funtsezko eskubideak, hala nola bizitza, osotasun fisikoa eta mentala edo osasunerako eskubidea, kaltetzeaz gain, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren oinarritzko printzipioa ere urratzen dute. Hortaz, abusu horiek gertatzen diren bitartean, emakumeen eta gizonen arteko erabateko berdintasuna lortzeko lanean jarraituko da.
- 2 **Emakumeen kontrako indarkeria egiturazko arazoa da, eta herrialde nahiz kultura guztietan gertatzen da, adin, gizarte-talde eta egoera ekonomiko guztietan. Indarkeria hori gizarte-erakunde guztietan gertatzen diren emakumeen aurkako desberdintasunen eta diskriminazioaren sistemaren zati da;** erakundeak patriarkalak direnez, genero maskulinoaren menderatzean eta nagusitasunean oinarritzen dira, genero femeninoaren gainetik, eta azken hori gutxiagotasun- eta mendekotasun-egoeran jartzen dute.
- 3 **Emakumeen kontrako indarkeriak hainbat adierazpen ditu**, horien artean, bikotekide edo bikotekide ohiaren bortxa, sexu-indarkeriaren mota guztiak, feminizidioa, emakumeen eta nesken salerosketa, sexu-esplotazioa, gazteegitan hitzartuta edo behartuta ezkonaraztea, emakumezkoen mutilazio genitala edota nazioarteko itunek, Espainiako Zigor Kodeak edo foru- zein Estatu-araudiak jasotzen duen indarkeria mota oro, emakumeen osotasunari, duintasunari edo askatasunari kalte egiten badio edo hala gertatuko dela uste bada.
- 4 Emakumeen kontra erabilitako indarkeria-motek, adierazpena edozein izanda ere, **kalte edota oinaze fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa eragiten**





diete biktima guztiei hainbat modutan. Horrez gain, emakumeen kontrako indarkeriak kostu sozial eta ekonomiko oso altuak ditu.

- 5 Adinak, nazionalitateak, etniak, desgaitasunak, bizilekuaren egoera administratiiboak (emakume emigranteen kasuan), pobrezia edo autonomia ekonomikoaren faltak nahiz beste hainbat errealitatek indarkeria egoerak areagotzea ekar dezakete eta, era berean, hiritar-eskubideak eraginkortasunez baliatzeko emakume askoren egoerak eta posizioak okerrera egitea.
- 6 **Emakumeen kontrako indarkeria bizirauten duten emakumeek errekupe-razio-prozesutik igaro beharko dute**, harik eta jasandako indarkeria-prozesua gainditzea lortzen duten arte. Emakumeen kontrako indarkeria jasan duten biktimen seme-alabak ere zuzeneko biktimak dira eta/edo indarkeria biziraun duten pertsonak.
- 7 Erakunde publikoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea sustatzeko ardura dutenez eta emakumeen kontrako indarkeria hori egiturazkoa denez, **ezinbestekoa da Botere Publikoek modu koordinatuan esku hartzea eta prozedura bateratuak ezartzea**. Horrela, arreta eta babes integrala bermatu ahal izanen da esparru sozialetik, hezkuntzaren edo osasunaren eremutik, eta esparru polizial, juridiko eta judizialetatik.
- 8 Jakin badakigu **jardunbideak gizartea errotik eraldatzea dakarrela eta, beraz, emakumeen arreta saihestezina baino harago joan behar duela. Beraz, ezinbestekoa da instituzioek diziplina anitzeko babes bateragarri egitea** ikerketarekin, prebentzioarekin eta sentsibilizazioarekin, indarkeriaren hautemate goiztiarrarekin eta arreta osoarekin (biziraun duten biktimak guztiz errekupe-ratu arte), baita eragindako kaltearen erreparazio indibidual nahiz kolektiboarekin, hori errepikatuko ez dela eta birbiktimizaziorik gertatuko ez dela bermatuz.
- 9 **Instituzioen erantzunak arreta egokia ziurtatu behar du, foru-araudiak nahiz nazioarteko araudi askok jasotzen duten bezala**, bai Europan bai estatuan, eta horiek guztiak lotesleak dira erkidegoko instituzioentzat. Zentzu horretan, honako hauek nabarmendu behar dira:

■ **Nazioarteko eta Europako araudia**

- Emakumeen aurkako Bazterkeria-mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa, CEDAW, 1979koa, baita horri dagokion Hautazko Protokoloa ere, 1999koa.
- Torturaren eta bestelako Tratu edo Zigor Anker, Krudel edo Umiliagarrien kontrako Konbentzioa, 1984koa, baita horri dagokion Hautazko Protokoloa ere, 2002koa.
- Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma, 1995ean Beijingen ospatutako Emakumeari buruzko Nazio Batuen IV. Mundu Konferentziako lanaren fruitua. Gero, Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusian maiztasunez errepasatua izan zen.





■ **Emakumeen eta nesken kontrako indarkeriarekin lotutako Europar Batasunaren zuzentarauak:**

- 2011/36/EB Zuzentaraua, prebentzio, gizakien salerosketaren aurkako borroka eta biktimen babesari buruzkoa, zeinak Kontseiluaren 2002/629/JAI Esparru Erabakia ordeztzen baitu.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/92/EB Zuzentaraua, 2011ko abenduaren 13koa, sexu-abusuen, adin txikikoen sexu-esplotazioaren eta haur-pornografiaren kontrako borrokari buruzkoa eta, zeinak Kontseiluaren 2004/68/JAI Esparru Erabakia ordeztzen baitu.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/EB Zuzentaraua, 2012ko urriaren 25ekoa, delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzekoa.

■ **Europako Kontseiluak hitzartutako itunik garrantzitsuenak:**

- Gizakien salerosketaren aurkako Hitzarmena, 2005ekoa, 2008tik indarrean (Varsoviako Hitzarmena).
- Haurrak sexu-esplotazioaren eta -abusuaren aurrean babesteko Hitzarmena, 2007koa (Lanzaroteko Hitzarmena).
- Emakumeen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta horien kontra borrokatzeko hitzarmena, 2011koa, (Istanbulgo Hitzarmena). Hitzarmen hori 2014an berretsi zuen Espainiako Erresumak.

■ **Estatuko araudia:**

- 1978ko Espainiako Konstituzioa.
- 27/2003 Legea, Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Agindua arautzen duena.
- 1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren aurka oso-osoko Babesa emateko Neurriei buruzkoa.
- 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarriko.
- 4/2015 Legea, Delituen Biktimaren Estatutuari buruzkoa.

■ **Nafarroako Foru Komunitateko araudia:**

- 33/2002 Foru Legea, Emakumeen eta Gizonen Aukera-Berdintasuna sustatzekoa.
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Foru Lege berri bat garatzen ari dira. Akordio hau gauzatzeko garaian oraindik onartua izan ez denez, ez da gehitu erreferentziatzko araudien zerrendan.
- 14/2015 Foru Legea, Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitekoa.





- 240/2015 Foru Dekretua, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren estatutuak onesten dituena.

10 Legeek pixkanaka aurrera egin dute, teknologia hobetu da eta emakumeen kontrako indarkeriaren nahiz gizarteko aldaketen errealitatea eta eragina hobeto ezagutzen dira. Hori dela eta, ezinbestekoa da erakundeen arteko koordinazio- eta elkarlan-tresnak bat etortzea emakumeen kontrako indarkeriaren lanketa oso-osoak unearen arabera eskatu dituen **beharrekin**. Nafarroako Foru Komunitatean, etengabeko koordinazioaren hobekuntza-prozesu horrek honako mugari hauek izan ditu:

- 1997ko maiatzean, Nafarroan emakumeen kontrako tratu txarrei eta sexu-erasoei buruzko departamentuen arteko Batzorde bat sortu zen lehen aldiz. Bertan, osasun-, polizia- eta gizarte-istantzietako nahiz instantzia juridikoetako arduradunek parte hartu zuten. Guztien esfortzua bateratzeko eta jarduketa-protokolo bat gauzatzeko helburua zuten, arreta integrala eta bizkorra emateko eta tramite zein jarduketan bikoiztasunak saihesteko. Ondorioz, 1998tik aurrera koordinazio hau Nafarroako Foru Komunitate osoan eraginkor bihurtu zen. Horri errekurtso berriak gehitu behar zaizkio, baita Nafarroako Gobernuak, segurtasuneko indar eta kidegoek nahiz gizarte-langileek sustatutako jarduketak ere; izan ere, horrek guztiak erakundeen arteko koordinazioari eta aldean arteko konpromisoari bide emanen dio, betiere, emakumei arreta hobea emateko helburuarekin.
- 2002ko maiatzaren 16an, *Ettxeko indarkeriaren eta/edo sexu-indarkeriaren biktime diren emakumei laguntza osoa emateko Erakunde arteko I.* Akordia sinatu zuten Nafarroan gai horretan inplikaturik zeuden erakundeetako agintari nagusiek.
- 2010eko abenduaren 17an, *Emakumeen kontrako indarkeria kasuen arreta eta prebentzioa eraginkortasunez koordinatzeko Erakunde arteko II.* Akordia sinatu zuten alde berberak.

Erakunde arteko II. Akordia sinatu ondoren, apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitekoa, indarrean sartzeak eta horren ekintza plana onartzeak hobekuntza oso handiak ekarri dituzte gerora. Halaber, zenbait protokolo Nafarroako Foru Komunitatean presentzia duten hainbat erakunderi eragin die, hala nola, *sexu-esplotaziorako salerosketaren biktime diren emakume eta neskatuen kasuak koordinatzeko eta jarduteko Protokoloak* (2016), eta *emakumezkoen mutilazio genitalari aurre hartzeko eta aurre egiteko Protokoloak* (2013). Horrek guztiak erakusten du beharrezkoa dela Erakunde arteko II. Akordia hobetzea eta *Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Nafarroako Erakunde arteko III.* Akordia sinatzea. III. akordia esparru eta euskarri izanen da lege-, polizia-, hezkuntza-, osasun eta gizarte-jarduketetan, emakumeen kontrako indarkeria biziraun duten biktimei arreta osoa emateko.





Horregatik guztiagatik, parte hartzen duten aldeek, daukaten ordezkarietaz baliaturik,

HONAKO HAU ADOSTU DUTE:

LEHENA

Akordio honen helburua da emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko eta oso-
osorik lantzeko inplikaturik dauden erakundeen artean ahalik eta koordinazio eta
elkarlanik onena lortzea eta Nafarroako Foru Komunitate osorako jarduketarako
jarraibide homogeenak zehaztea, kalitatezko arreta berma dadin arlo sozialean,
juridikoan eta judizialean, baita polizia-, hezkuntza- eta osasun-arloan ere. Horretaz
gain, akordio honen beste helburu bat prebentzio-lana sustatzea eta indartzea da
ikerketa, prestakuntza eta sentsibilizazio bidez.

BIGARRENA

Instituzio sinatzaileak prest daude biziraun duten biktimei apirilaren 10eko 14/2015
Foru Legearen printzipioen arabera arreta emateko, emakumeen kontrako indar-
keriari aurre egiteko. Honako hauek dira printzipioak: aurrekontu-bermea, giza es-
kubideen errespetua, babesa eta sustapena, arreta egokia, genero-ikuspegia, bitar-
tekaritzaren berariazko debekua, diskriminazioaren debekua, diskriminazio anitzei
arreta ematea, erantzun integrala eta koordinazioa, begirunea eta birbiktimizaziorik
eza, emakume biktimei eta emakumeen elkarten erantzukizuna eta partaidetza
emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko zerbitzu eta politika publikoen disei-
nuan eta ebaluazioan.

Halaber, dagozkien eskumenen esparruan, konpromisoa hartzen dute etengabeko
prestakuntza-programa espezializatuak ezartzeko, emakumeen kontrako indarkeria-
ren arloko esparru guztietatik esku hartzen duten profesional guztiei zuzentzen zaiz-
kienak. Programa horiek generoaren ikuspuntutik diseinatu eta eskainiko dira. Era
berean, 14/2015 Foru Legea ezartzearen bermea dakarte, betiere akordioa sinatu
duten aldeen eskumenak eta botere judizialaren independentzia errespetatuz.

HIRUGARRENA

Jada azaldu den bezala, emakumeen kontrako indarkeriak funtsezko giza eskubi-
deak urratzen ditu, baina kontzeptu hori ez da mugatu behar 1/2004 Lege Orga-
nikoak, Genero Indarkeriaren aurka oso-osoko Babesa emateko Neurriak buruzkoak,
ezartzen duenera. Zentzu horretan, 14/2015 Foru Legeari jarraituz, emakumeen
kontrako indarkeriatzat ulertzen da emakumea izateagatik emakumeen kontra bide-
ratzen dena edo haiengan proportziorik gabeko eragina duena, genero-diskrimina-
zioaren agerpen gisa eta emakumeentzako kalte edo oinaze fisikoa, psikologikoa,
sexuala edo ekonomikoa dakarrena edo ekar dezakeena, mehatxuak, beldurraraz-
teak eta hertsatzeak edo askatasun-gabetze arbitrarioak barne hartuta, bitzita pu-





blikoan nahiz pribatuan gertatzen direnak. Indarkeriaren biktima diren emakumeen kontzeptuaren barruan neska adingabeak ere sartuta daudela ulertzen da.

Akordio hau sinatu duten alde guztiak, betiere beren eskumenak eta, bereziki, botere judizialaren independentzia al bait gehien errespetatuz, emakumeen kontrako indarkeriaren kontzeptuaren arabera jardunen dute.

LAUGARRENA

Instituzio sinatzaileek, emakumeen kontrako indarkeria-kasuak gertatu direla jakitean, prest daude jarduketa honako hauetara egokitzeke: batetik, akordio honi erantsi zaizkion jarduketa koordinaturako protokoloetara eta, bestetik, Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dauden erakunde arteko koordinaziorako beste protokolo batzuetara, horien artean, sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakume eta neskatuen kasuak koordinatzeko eta jarduteko Protokoloa (2016), eta emakumezkoen mutilazio genitalari aurre hartzeko eta aurre egiteko Protokoloa (2013), betiere akordioa sinatu duten aldeen konpetentziak eta botere judizialaren independentzia al bait gehien errespetatuz.

Halaber, erakunde sinatzaileak, berriro ere konpetentziak eta botere judizialaren independentzia al bait gehien errespetatuz, prest daude Nafarroako toki entitateekin elkarlanean tokiko koordinazio-protokoloak gauzatzeko eta garatzeko, emakumeen kontrako indarkeria hauteman, behar bezala jardun eta bidera dadin.

BOSGARRENA

Aipatutako jarduketa-protokoloko neurriak eta jarraibideak eraginkortasunez ezartzen laguntzeko, instituzio sinatzaileek, dagozkien eskumenen esparruan betiere, honako hau egingen dute:

- a) **Hedapena:** Jarduketa protokoloaren edukiak hedatu egingen dira, instituzio sinatzaile bakoitza osatzen duten edo horien menpe dauden profesionalen artean eta emakumeen kontrako indarkeria-egoeren ondoriozko arau-hauste penalen jazarpenean esku hartzen duten profesionalen artean, baita biziraun duten biktimen arretan esku hartzen dutenen artean ere. Horretarako, kasuaren arabera egokienak diren tresnak erabiliko dira: akordio eta protokolo honen edukien igorpena, jarraibideak, zirkularrak, gomendioak, gidak, jardunaldiak, sentsibilizazio-tailerrak, prestakuntzarako jarduketak, etab.
- b) **Prestakuntza:** Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko prestakuntza etengabeko planak egingen dira, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bidez eta Nafarroako Gobernuak zehaztutako prestakuntza-bideak kontuan hartuz, betiere eskumenak eta, batez ere, botere judizialaren independentzia al bait gehien errespetatuz. Prestakuntza honek emakumeen ahalduntzea izanen du ikuspuntutzat, esku-hartze profesionalaren helmuga gisa.





c) **Baliabideen hornikuntza:**

Akordio honen edukiak gauzatzeko beharrezko diren giza baliabideak, baliabide material eta teknikoak bideratuko dira.

SEIGARRENA

Akordio honen edukiak eraginkorrak izan daitezzen, batzorde iraunkor bat sortuko da. Kide anitzeko organo horrek hartuko ditu erabakiak, eta akordio hau sinatu duten aldeek edo horien ordezkariak osatuko dute organoa.

Nafarroako Gobernuko Lehendakaria edo horren ordezkaria izanen da Batzorde Iraunkorreko Presidentea, eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuko Kudeaketa Zuzendaritza arduratuko da idazkari-lanez.

Honako hauek izanen dira Batzorde Iraunkorraren egitekoak:

- a) III. Akordioaren urteko jarraipen-txostenak ezagutzea, Jarraipen Batzordeak onartu ostean. Jarraipen-txostenak Nafarroako Berdintasunerako Institutuak egingen ditu.
- b) Jarraipen Batzordeak Erakunde arteko Akordioaren edukien eta Jarduketa Protokoloaren gauzatzeari buruz egiten duen ebaluazioa ezagutzea. Behar izanez gero, Batzorde Iraunkorrak hobetzeko proposamenak egingen ditu, baita baliabideak esleitzea dakarten proposamenak ere.
- c) 14/2015 Legearen, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitekoaren, jarraipen eta ebaluazio txostenak ezagutzea.

Batzorde Iraunkorrak urtean ohiko bilera bat egingen du, gutxienez. Gainera, bilera bereziak egin ditzake, lehendakaritzak edo edozein kidek eskatuta. Kasu horretan, eskaera idatziz egin beharko da, eta jorratu beharreko proposamen arrazoitua jasoko du. Batzarburuak bilkura berezia deituko du, eskaera egin eta hamabost eguneko epean, eta gai-zerrendak ezinbestean jasoko ditu eskatutako puntuak. Batzarburuak beste batzuk gehitzeko aukera izanen du.

ZAZPIGARRENA

Erakunde sinatzaileen arteko koordinazioa hobetzearren eta Akordio honen betearazpeneren jarraipena eta ebaluazioa ahalbidetzeko, Jarraipen Batzorde bat sortu da, azterketarako eta eztabaidarako kide anitzeko organo gisa.

Ondoko hauek egonen dira Jarraipen Batzordean:

- **Batzordeburua:** Nafarroako Berdintasunerako Institutuko Zuzendaritza Kudeatzailea.
- **Batzordeburuordea:** Nafarroako Berdintasunerako Institutua.
- **Idazkaritza:** Nafarroako Berdintasunerako Institutua.





■ **Batzordekideak:** Akordio hau sinatu duten aldeek behar den kide kopurua izendatuko dute Batzorde honetan parte hartzeko, jarritako helburuak hobekien betetzearren. Batzordean ondoko erakunde hauen ordezkari bana egonen da, gutxienez:

- Justizian eskumena duen Nafarroako Gobernuko Departamentua.
- Hezkuntzan eskumena duen Nafarroako Gobernuko Departamentua.
- Osasunean eskumena duen Nafarroako Gobernuko Departamentua.
- Gizarteratzean eta Babesean eskumena duen Nafarroako Gobernuko Departamentua.
- Familian eta Adingabeetan eskumena duen Nafarroako Gobernuko Departamentua.
- Etxebizitzan eskumena duen Nafarroako Gobernuko Departamentua.
- Enpleguan eskumena duen Nafarroako Gobernuko Departamentua.
- Babes Zibilean eskumena duen Nafarroako Gobernuko Departamentua.
- Lege eta Auzitegi Medikuntzan eskumena duen Nafarroako Gobernuko Departamentua.
- Foruzaingoa.
- Nafarroako Gobernuko Ordezkaritza.
- Polizia Nazionala.
- Guardia Zibila.
- Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusia.
- BJKN – Nafarroako Auzitegi Nagusia.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa
- Iruñeko Udaltzaingoa.
- Emakumeei laguntza juridikoa emateko Zerbitzua.

Batzordeak urtean bi ohiko bilkura egingen ditu, gutxienez. Horrez gain, bilkura be-
reziak egiteko aukera egonen da, Batzarburuak edo Batzarkideen bi herenek hala
eskatzen badute. Kasu horretan, eskaera idatziz egin beharko da, eta jorratu be-
harreko proposamen arrazoitua jasoko du. Batzarburuak bilkura berezia deituko du,
eskaera egin eta hamabost eguneko epean, eta gai-zerrendak ezinbestean jasoko
ditu eskatutako puntuak. Batzarburuak beste batzuk gehitzeko aukera izanen du.





ZORTZIGARRENA

Jarraipen Batzordeari babesa eta kontrastea eskainiko zaizkio, eginbeharrak behar bezala gauzatu ditzan. Horretarako, bi egitura egonen dira:

- **Nafarroako Gobernuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamenduen arteko Batzordea**, zeina 2017ko apirilaren 12an sortu baitzen Gobernuaren erabaki bidez. Departamenduen arteko organo horrek elkarlana, kooperazioa eta koordinazioa sustatuko ditu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa gizarteratzeko eta emakumeen kontrako indarkeria Foru Komunitateko Administrazioaren politika guztietatik deuseztatzeko. Horrek guztiak Jarraipen Batzordearen lana erraztuko du, eta halaber, Batzordeari jarduketarako plan eta programen berri emanen zaio, sustatu, garatu eta balioztatu ditzan, 14/2015 Foru Legea, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko, betetze aldera.

Nafarroako Gobernuko Lehendakaria izanen da Departamentuen arteko Batzordearen Presidentea, eta horren kideak Zuzendaritza Nagusiko edo Gerentzietako titularrak izanen dira. Azken horien lan-esparrua estrategikoa izanen da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan txertatzeko.

- **Ad hoc Talde Teknikoak.** Jarraipen Batzordeak lehenesten dituen lan-programen eta beharren arabera sortuko dira. Gainera, II. Akordioaren baitan Jarraipen Batzordeari lagundu zieten Departamenduen arteko Talde Teknikoak ordezkatu dituzte. Jarraipen Batzordea osatzen duten erakundee-tako ordezkari profesionalek Talde Teknikoak osatuko dituzte. Horien aldeko apustua egingen dute, laguntza teknikoa eskaintze aldera.

BEDERATZIGARRENA

Batzorde Iraunkorraren eta Jarraipen Batzordearen funtzionamendua eta erabakiak gauzatu dira Kide anitzeko Organoak arautzen dituen araudi orokorraren eta aplikatu beharreko legedian ezarritakoaren arabera.

HAMARGARRENA

Sinatzen den egunetik aurrera izanen ditu ondorioak Akordio honek eta urte baterako balioko du. Isilbidez luzatuko da, alde batek ez badio espresuki uko egiten.





Eta aurreko guztiarekin ados daudela erakusteko, Akordio hau sinatu dute, goian adierazitako lekuan eta egunean.

**POR EL GOBIERNO DE NAVARRA
NAFARROAKO GOBERNUAREN IZENEAN**

Uxue Barkos Berruezo.

**POR LA DELEGACIÓN DEL GOBIERNO EN NAVARRA
NAFARROAKO GOBERNUKO ORDEZKARITZAREN IZENEAN**

Carmen Alba Orduna.

**POR EL CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL
BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN IZENEAN**

Joaquín Cristóbal Galve Sauras

**POR LA FISCALÍA SUPERIOR DE LA COMUNIDAD FORAL DE NAVARRA
NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO FISKALTZA NAGUSIAREN IZENEAN**

José Antonio Sánchez Sanchez-Villarés.

**POR LA FEDERACIÓN NAVARRA DE MUNICIPIOS Y CONCEJOS
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOAREN IZENEAN**

Pablo Azcona Molinet.



2.

JARDUKETA BATERATURAKO
PROTOKOLOA



AURKIBIDEA

2.1. Sarrera	25
2.2. Emakumeen kontrako indarkeria III. Akordioan	25
2.3. Jarduketak zuzendu eta bideratu behar dituzten printzipioak	27
2.4. Jarduketa Protokoloaren helburu nagusiak	30
2.5. Jarduketa Protokoloa	30
2.5.1. Larrialdi-egoerak edo/eta egoera larriak	31
2.5.2. Esparruen araberako jarduketa-protokoloa	33
A) Osasun-esparrua	33
B) Polizia-esparrua	38
C) Esparru juridiko eta judiziala	46
D) Gizarte eremua	54
E) Hezkuntza-eremua	57
F) Etxebizitza-eremua	62
G) Enplegu-eremua	63





2.1. SARRERA

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoak, 19. artikuluan, emakume biktimen gizarte-laguntza osorako eskubidea bermatzen du, eta emakumeen arreta-zerbitzuek modu koordinatuan aritu behar dutela jasotzen du, segurtasun-kidegoekin, emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiekin, osasun-zerbitzuekin eta emakumeei laguntza juridikoa emateko arduraren instituzioekin batera. Lege berberak, 32. artikuluan, Botere Publikoek elkarlanean aritzeko planak egin behar dituztela zehazten du; elkarlan horretan arituko dira osasun-administrazioak, justizia-administrazioa, segurtasun-ingar eta -kidegoak eta gizarte-zerbitzuak nahiz berdintasunerako antolakundeak.

Bere aldetik, apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak, Emakumeen kontrako Indarkeriari Nafarroan aurre egitekoak, adierazten duenez, erantzun integrala eta koordinazioa Botere Publikoek abiarazitako jarduketa guztiak zuzendu eta bideratu behar dituzten printzipioetako bat dira; izan ere, biziraun duten biktimen beharrei politika publikoaren esparru desberdin askotatik heldu behar diete instituzioek. Zentzu horretan, instituzioen erantzunak integrala izan behar duenez, instantzien arteko koordinazioa eta lana sustatuko direla zehazten du arauak. Printzipio artezkari hori 77. artikuluan zehazten da; horren arabera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bultzatuko du foru lege honetako gaitan eskumenak dituzten instituzioen arteko koordinazioa, helburu hauek bermatzeko: legearen aplikazioaren jarraipena eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako ekintza planen eta neurrien prestateta. Gainera, bigarren xedapen gehigarrian zehazten denez, foru legeak aipatzen diren protokolo guztiak derrigorrez bete beharrekoak izanen dira sinatzen dituzten erakunde, pertsona eta entitate publiko edo pribatu guztientzat.

Instituzioen arteko koordinazioa eta elkarlana ezinbesteko baldintza dira emakumeen kontrako indarkeriaren aurka eraginkortasunez jarduteko, eta esparru horretatik deskribatzen da, jarraian, Nafarroako Foru Komunitateko jarduketa bateratuko protokoloa, III. Akordio hau sinatzen duten instituzio guztien jarduketak koordinatzeko eta biziraun duten biktima guztien arreta integrala bermatzeko.

2.2. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA III. AKORDIOAN

Akordio honen ondoretarako, emakumeen kontrako indarkeriatzat ulertzen da emakumea izateagatik emakumeen kontra bideratzen dena edo haiengan proportziorik gabeko eragina duena, genero-diskriminazioaren agerpen gisa eta emakumeentzako kalte edo oinaze **fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa** dakarrena edo ekar dezakeena, mehatxuak, beldurrarazteak eta hertsatzeak edo askatasun-gabetze arbitrarioak barne hartuta, bizitza publikoan nahiz pribatuan gertatzen direnak.

Indarkeriaren biktima diren emakumeen kontzeptuaren barruan neska adingabeak ere sartuta daudela ulertzen da.





Nafarroako emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legearen arabera, emakumeen kontrako indarkeriaren **agerpen** gisa ulertzen dira honakoak:

- **Indarkeria bikotean edo bikote ohian:** indarkeria fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa edo sexuala, bikotekide duen edo izan duen gizonak edo berarekin antzeko harreman afektiboak izan dituenak, batera bizi direla nahiz ez, emakumearen kontra erabilitakoa, indarkeriazko ingurunean bizi diren haurrengan duen eragina barne hartuta.
- **Sexu-indarkeriaren agerpen ezberdinak:** emakume eta nesken kontrako sexu-indarkeriak bere baitan hartzen ditu sexu-erasoa, sexu-abusua, sexu-jazarpena lanean edo hezkuntzan eta sexu-abusua familian, komunitatean, hezkuntzan, lanean eta esparru publikoan.
- **Feminizidioa:** bikotean edo bikote ohian eginiko homizidioak, eta gene-roak eragindako diskriminazioan oinarritutako indarkeria erakusten duten beste krimen batzuk, hala nola sexu-indarkeriarekin loturiko hilketak, prostituzioaren eta emakumezkoen salerosketaren eremuko hilketak, ohorea-gatiko hilketak, neskatoen infantizidioa eta ezkonsariagatiko hilketak.
- **Sexu-esplotazioa:** emakumeak eta neskak prostituzioan, sexu-morrantzan edo beste sexu-zerbitzu batzuetan ariztetik, ekintza pornografikoak edo material pornografikoak egitea barne, finantza-onurak edo bestelakoak lortzea, bortxaz, mehatxuaz, engainuaz edo nagusitasunezko egoera batez edo biktimaren egoera ahulaz baliatuz.
- **Gazteegitan ezkontzea, ezkontza hitzartua edo behartua:** baimen libre eta erabatekorik izan ez duen ezkontza, hirugarrenen arteko akordio baten emaitza izan delako, emakumearen borondatea kontuan hartu gabe, edo mehatxupean edo bortxaz egiten delako, edo baimena emateko legez aurreikusitako adina baino gazteagoa delako emakumea.
- **Emakumeen genitalen mutilazioa:** emakumearen genitalak osorik edo zati batean kentzea dakarren edo ekar dezakeen edo haietan lesioak eragiten dituen edozein prozedura, emakumearen edo neskaren baimena izan da ere, berariazkoa nahiz esan gabekoa.
- **Emakumeen duintasuna, osotasuna edo askatasuna kaltetzen duen edo kalte dezakeen beste edozein indarkeria-mota,** nazioarteko itunetan, Espainiako Zigor Kodean edo Estatuko nahiz Foru Komunitateko araudian aurreikusirik dagoena.

Emakumeen kontrako indarkeriaren kontzeptualizazio horrek nazioarteko eta erkidegoko araudiarekin bat egiten du, eta jardun-esparrua zabaltzen du abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoari, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurri buruzkoari dagokionez; izan ere, emakumeen aurkako indarkeriaren beste agerpen eta forma batzuk hartzen ditu kontuan, emakumeen ezkontide direnek edo izan direnek, edo haiekin horren antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitarik ez izan, emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeriaz gain.





2.3. JARDUKETAK ZUZENDU ETA BIDERATU BEHAR DITUZTEN PRINTZIPIOAK

III. Akordioaren sinatzaileek esku-hartze publikoaren ikuspegi berri batetik beregatzatzen dituzte sustatu beharreko jarduketak, eta, horren arabera, hainbat printzipio kontuan hartu behar dituzte esku-hartzea bideratzeko. Horietako zortzi 14/2015 Legearen 6. artikuluan aipatzen dira espresuki, eta beste bi, aurrekontu-bermea eta emakumeen ahalduntzea lan-helburu gisa, zeharka jasotzen dira arauan. Jarraian deskribatzen dira.

GIZA ESKUBIDEEN ERRESPECTUA, BABESA ETA SUSTAPENA

Emakumeen kontra generoak eragindako indarkeria, borrokatzeko jardun instituzional eta profesionala emakumeen giza eskubideak errespetatu, babestu eta sustatzera bideratuko da.

«ARRETA EGOKIA» IZENENKO PRINTZIPIOA

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurreko erantzuna erantzukizun instituzionalaren maila guztietara zabalduko da (prebentzioa, babesa, laguntza, biktimentzako erreparazioa eta justiziaren sustapena), eta emakumeen eskubideak egiaz gauzatzaren direla bermatzea izanen du helburu.

GENERO IKUSPEGIA ETA BITARTEKARITZAREN BERARIAZKO DEBEKUA

Emakumeen kontrako indarkeriari eman beharreko erantzunean, oinarrizkoa izanen da generoari lotutako estereotipoak eta harreman ezberdin eta hierarkikoak ulertzea, haien erroak zein ondorioak.

Biktimaren eta erasotzailearen arteko bitartekaritza berariaz dago debekaturik emakumeen kontrako indarkeria kasuetan, aplikatu beharreko oinarrizko araudian xedatuta dagoenez.

DISKRIMINAZIOAREN DEBEKUA ETA LURRADE-OREKA

Erakunde publikoek bermatu eginen dute foru-lege honetan aurreikusitako neurriak aplikatuko direla inolako diskriminaziorik gabe, hau da, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, iritzi-politikoak edo beste edozein, jatorri nazionala edo soziala, gutxiengo nazional bateko kide izatea, gaitasun ekonomikoa, sexu joera, genero identitatea, adina, osasun egoera, desgaitasuna, egoera zibila, migratzaile estatusa edo egoitzaren egoera administratiboa edozein izanik ere.

III. Akordioaren esparruaren baitako prebentzio-, arreta- eta erreparazio-jarduketak gauzatzeko, Nafarroako aniztasun geografikoa eta landa-eremuak hartuko dira kontuan. Hartara, emakume guztiak, seme-alabak barne, jarduketa guztietara sarbidea



dutela bermatuko da, Foru Komunitateko edozein lekutan bizi izanda ere.

INTERSEKZIONALITATEA ETA DISKRIMINAZIO ANITZARI ARRETA EMATEA

Instituzioen erantzunak bereziki hartuko du kontuan emakumeen kontrako indarkeriaren intersektzioa beste desberdintasun- eta diskriminazio-iturri batzuekin. Emakumeek beren aurkako indarkeriaren errealitatea partekatzen duten arren, egoera desberdina bizi dezakete errealitatearen aurrean, honako hauen arabera: adina, klase soziala, nazionalitatea, etnia, desgaitasuna, egoiliar-egoera administratiboa emakume migratzaileen kasuan, edo bestelakoak, emakume sektore zehatz batzuk egoera okerragoan jartzen dituztenak eskubideez baliatzeko garaian.

BEGIRUNEA ETA BIRBIKTIMIZAZIOARIK EZA

Instituzioen erantzunak bideak ezarriko ditu biktimak begirunez tratatzen direla eta emakumea ez dela bi aldiz biktima bihurtzen ziurtatzeko. Neurriak biziraun dutenen autonomia eta askatasuna lortzera bideratzen direla bermatuko da, baita haien behar nagusiei erantzuten zaiela ere, biktimen seme-alabenak barne.

ERANTZUKIZUNA

Erakunde publikoek prestakuntza prozesuak ezarriko dituzte emakumeak euren eskubideez egiaz baliu daitezkeela ziurtatzeko ardura dutenek modu egokian jarduten dutela bermatzeko, esku-hartzetik desbideratu gabe. Era berean, erantzukizunak eskatuko dira arreta falta dagoenean.

Esku hartzen denean eduki beharreko ardurak berekin dakar emakumeen kontrako indarkeriaren arloan hainbat prestakuntza-programa sektorial abiarazteko eta jarraitzeko beharra, oinarritzakoak zein espezializatuak. Nafarroako Foru Komunitateko instituzio publiko guztietatik arlo horretan esku hartzen duten profesional guztiei zuzendu behar zaizkie, edozein ardura-maila izanik ere.

PARTE-HARTZEA

Indarkeriaren biktima diren emakumeen eta emakume-erakundeen parte-hartzea sustatuko da, Akordio honen esparruan egiten diren jarduketak diseinatzean eta ebaluatzean. Era berean, emakumeen kontrako indarkeriaren errealitatearen aurrean ahulagoak diren taldeak ordezkatzeko dituzten erakundeen parte-hartzea bultzatuko da.

AURREKONTU-BERMEA

Akordioa sinatzen duten instituzio publikoek finantzaketaren aldeko konpromiso argia mantenduko dute, Akordio honetan jasotako konpromisoak eraginkortasunez bete daitezela. Horretarako, beren eskumenak erabat errespetatuko dituzte eta, batez ere, independentzia judiziala.





EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ESKU-HARTZEAREN HELBURU GISA

Emakumeen ahalduntzea, hau da, emakume bakoitzak bere buruarekin duen harremana aldatzeko prozesua, emakumeek indarkeriaren bizipenari eta esperientziari beste posizio batetik aurre egiteko tresna da, baina, horrez gain, esku-hartze profesionalaren helburu ere bada. Emakumeen ahalduntzea emakumeen bizitza hobetzeko bidea da, autoestimuairekin, autonomiarekin, askatasunarekin eta norbere ongizatearekin bizitzeko. Hori dela-eta, prozesu horri laguntzea izan behar du helburu esku-hartze profesionalak. Emakumeen ahalduntzea baldintza ezinbestekoa da haien aurkako indarkeria deuseztatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko.

Printzipio horiez gain, honako **BERME** hauek zehazten dira, Akordio honen baitako jarduketek aurreikusita dagoen inpaktua izan dezaten:

- **Biziraun duten emakumeentzako eta haien seme-alabentzako arreta integral eta egokitua.** Emakumeentzako informazio eta arreta egokitua bermatzeko beharrezko diren neurriak hartuko dira, hizkuntza-oztopoak dituztenean, interprete-eskubidea bermatuz, eta desgaitasunen bat dutenean (intelektuala, fisikoa, sentsoriala eta psikikoa).
- **Intimitatea eta pribatutasuna arretan,** jarduketak hartzen dituzten gelei eta bitarteko fisikoei dagokienez, bereziki. Elkarrizketak eta azterketak instalazio egokietan gauzatuko dira, igarolekuetatik kanpo eta laguntzailerik gabe, erasotzailea bera edo egoeraren konplizeak edo babesleak izan ez daitezten. Espazio espezifikoak eta biziraun duten pertsonen seme-alabei egokituak prestatuko dira.
- **Laguntza eta babes profesionala ibilbide osoan zehar.** Beharrezko tresnak ezarriko dira, emakumeek indarkeriaren arloan prestakuntza duten profesionalen laguntza izan dezaten, arreta- eta errekuperatze-prozesu osoan zehar.
- **Emakumeei ahalduntzen laguntzeko helburuarekin,** prestakuntza espezifikoa emanen zaie gai horren inguruan, baita eskura dituzten eskubi-deen eta baliabide publikoen inguruko informazioa ere. Gainera, emakumeak arriskuan jar ez daitezela bilatuko da, beren aldaketa-prozesuen jabe izan daitezela, beren erabakiak errespetatuz, bizi eta gairitu behar dituzten prozesuen konplexutasuna ulertuz eta birbiktimizazioa eta erresistentzia ekidinez.
- **Arretaren eraginkortasuna.** Administrazioen arteko barne-koordinazioa nagusituko da, esku-hartzean bikoiztasunak edo hutsuneak ekiditeko. Emakumeen baimenarekin, departamenduen artean informazioa helarazteko aukera egonen da, erabilera arrunteko dokumentuak barne, hala nola NAN fotokopiak, osasun-txartel indibidualak, familia-liburuak, epai judizialak, mediku- eta gizarte-txostenak, polizia-salaketak eta tratamen-





du eta, Datuen Babeserako Lege Organikoa arabera, zaintza berezia behar duten beste dokumentu batzuk.

2.4. JARDUKETA PROTOKOLOAREN HELBURU NAGUSIAK

- **Baldintza egokiak sortzea, Nafarroako Foru Komunitatean presentzia duten instituzioen artean koordinazio eta elkarlan egokia egon dadin.** Erakunde horiek emakumeen kontrako indarkeria-kasuak biziraun dituzten biktimen prebentzioaz, babesaz eta errekupeazioaz arduratzen dira, hobekuntza etengabearen ikuspuntutik.
- **Atentzio-, babes- eta errekupeazio-sistema jarraibide bateratuen eta homogeneoen bidez antolatuta dagoela bermatzea.**
- **Atentzio osoa ematea eta emakumeen segurtasuna modu koordinatuan bermatzea,** emakumeek izapide guztietarako informazio ulergarri eta erabilgarria izan dezaten, autonomoak izan daitezen eta arreta- eta errekupeazio-prozesu guztian zehar aholkularitza profesionala jaso dezaten.
- **Atentzio integrala emateko sistemaren kalitatea hobetzea,** emakumeen kontrako indarkeriari buruzko prestakuntzaren bidez eta esku-hartzen duten profesionalak prestatuz.
- **Emakumeen kontrako indarkeria prebenitzea,** hezkuntza-komunitatearen bidez eta familia-, lan- nahiz gizarte-ingurunean.
- **Indarrean dagoen lege-esparrua garatzea,** batez ere, 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, emakumeen kontrako indarkeriari Nafarroan aurre egitekoa, 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena eta 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.

2.5. JARDUKETA PROTOKOLOA

Atal honetan Nafarroako emakumeen kontrako indarkeriari buruzko jarduketa-protokolo koordinatua deskribatzen da, bai larrialdi-egoerentarako eta/edo egoera larrietarako bai gainerako jarduketa-esparruentarako. Edonola ere, profesionalak ezagutza zorrotz eta zehatza izan dezaten emakumeen kontrako indarkeria-kasuetan edota salaketetan erabili behar diren prozeduren inguruan, 2006az geroztik, Nafarroan, eskuragarri dago **Nafarroan Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Kontra Bateria Jarduteko Protokoloaren Profesionalentzako Gida**. Etengabe eguneratzen da, Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren esku-hartzeari eragiten dioten araudi-aldaketak nahiz aldaketa sozialak eta teknikoak gehitu daitezen.

Gida horretan arretaren/esku-hartzearen faseak (demanda jasotzea, jarduketa profesionala eta jarduketaren amaiera) zehazten dira, emakumeei arreta emateko pro-





zesuan esku hartzen duten instituzio, organismo eta baliabide guztienak, besteak beste, honako hauenak: larrialdiak koordinatzeaz arduratzen den erakunde nagusia, hots, Sos Nafarroa, polizia-kidegoak, premiazko laguntza juridiko eta psikologikoa, osasun- eta gizarte-zerbitzuak, telelaguntza mugikorra, harrera-baliabideak, prozedura judizialak, familiarentzako elkarguneak, etab.

2.5.1. LARRIALDI-EGOERAK EDO/ETA EGOERA LARRIAK

112 SOS NAFARROA TELEFONOA: LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA

112 SOS Nafarroa da Nafarroako Gobernuko Barneko Zuzendaritza Nagusiaren larrialdiak koordinatzeko zentrala. Muturreko egoeren edo berehalako arriskuaren aurrean, emakumeek berehalako esku hartzea behar badute, 112 SOS Nafarroa larrialdi zenbakira deitu behar da. Nafarroako Larrialdietako Agentziak honako hauen arreta osoa eta koordinatua eskaintzen du: segurtasuneko indar eta kidegoak, ospitaleak, 24 orduko Larrialdietarako Zentroa, jurisdikzio-organoak eta beharrezkoak diren beste instantzia batzuk. Horri esker, arreta-prozesu guztia abiarazten da, modu bateratuan, azkarren, integralean eta dohainik.

NORK DEITU DEZAKE 112 ZENBAKIRA

Emakumeak berak dei egin dezake eta, orobat, familiako kideek, lagunek, osasun- zein gizarte-zerbitzuek, Foruzaingoak, jurisdikzio-organoek edota beste edozein zerbitzuek, gertatutakoaren berri badu edo eraso jasan duen emakumearentzat edo arriskuan dagoenarentzat premiazko arreta eskatzen badu. Goian aipatutako instantziei esker, emakumei ahalik eta azkarren arreta eman ahal izateko lekualdatze-baliabideak bermatuko dira.







JARDUKETEN KOORDINAZIOA

Emakumeen kontrako indarkeriaren kasu baten aurrean

Gertakariaren berri izan dezakete



112 - SOS NAFARROA



*BAIT: Genero indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko taldeak.





2.5.2. ESPARRUEN ARABERAKO JARDUKETA-PROTOKOLOA

Jarduketa bateraturako protokoloaren atal honetan, zer prozedura jarraitu behar den zehazten da, emakumeen kontrako indarkeria-egoeren arretan esku hartzen duten esparru edo espazioetatik. Ez dira baliabide zehatzak zehazten; horren ordez, esku-hartze profesionalaren esparruen arabeko arreta jorratzen da (osasuna, gizartea, etxebizitza, hezkuntza eta enplegua). Esparru bakoitzaren informazio zehatzagoa eskuratzeko, Nafarroan Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Kontra Batera Jarduteko Protokoloaren Profesionalentzako Gida (2017) kontsultatzea gomendatzen da.

A) OSASUN ESPARRUA

Emakumeen kontrako indarkeria, norberaren osasun-arazoa izateaz gain, osasun-arazo publikoa ere bada. Ondorio zuzenak, fisikoak eta psikikoak ditu emakumeetan, haien seme-alabetan, harreman-inguruan, osasun arloko langileetan eta gizarte osoan. Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legeak adierazten duenez, foru legean jasotzen den indarkeria-mota baten bat nozitu duen emakume orok osasun-arreta jasotzeko eskubidea du.

Osasun-esparrutik profesionalki esku hartzen duten pertsonak funtsezko funtzioa betetzen dute osasun-arretan eta osasun-egoeraren bilakaeraren jarraipenean, guztiz suspertu artekoan, emakumeen kontrako indarkeria-egoeraren bat jasan duten pertsona ororen kasuan, haien administrazio-egoera edozein delarik ere, jarduketa global, integratu eta koordinatuaren bidez. Ardura hori emakumeen kontrako indarkeria-egoera berrien detekziora eta prebentziora ere hedatzen da; izan ere, osasun-zentroak emakumea indarkeria-egoeran dagoela identifikatzen duten lehenak izaten dira maiz.

Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoak aurreikusten duenez, Osasun-arloan eskumenak dituzten Administrazioek sustatuko dute osasun-arloan jarduteko jarraibide bateratuak dituzten protokoloen aplikazioa, etengabeko eguneratzea eta zabaltzea. Protokolo horiek espresuki aipatu behar dituzte Justizia Administrazioarekin izan beharreko harremanak, halako eraso nahiz abusuek sortutako kalte fisiko eta psikikoak egiaztatu direnean edo halakoen susmo sendoa dagoenean.

Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko foru-legediak, 2002. urteaz geroztik, jarduketa-protokoloen lanketa aurreikusten du, osasun-arloan ekiteko jarraibideekin eta osasun-sistemako zentro eta zerbitzu guztietarako koordinazio-prozedurekin. Protokoloek datuak jasotzeko txostenen ereduak eduki beharko dituzte, baita gizarte-zerbitzu espezifikotara bideratzeko txostenenak ere. Era berean, txostenok Guardiako Epaitegira eta Fiskaltzara igortzeko betebeharra jasoko da, eraso nahiz tratatu txarrekin sortutako kalte fisiko eta psikikoak egiaztatu direnean edo halakoen susmo sendoa dagoenean. Emakumeei beti eman behar zaie txostenaren igorpenaren berri.





Zentzu horretan, protokoloek laguntza asko ematen dute jarduketa profesionala hobetzeko eta zehazteko, eta emakumeen arretaren kalitatea hobetzen dute. Esku-hartzeen protokoloek, besteak beste, osasun-arloko esku-hartzearen eremu zehatza definitzeko aukera ematen dute, horren eskumenak eta jarduketaren mugak zehaztuz. Horrez gain, osasun-arloko profesionalak prozesu osoan kokatzen laguntzen dute, eta emakumeei eskura dituzten baliabideen inguruko informazio egokia errazten diete. Era berean, beste edozein protokoloren kasuan bezalaxe, egoera konplexu hauetarako arreta-kalitateari buruzko estandarrak egotea ahalbidetzen da, eta emakumeen kontrako indarkeria-kasuen detekzioan eta arretan ondo jarduteko homogeneotasun-irizpideak zehazten dira. Hala ere, protokolo horiek aplikatzeko, profesionalen prestakuntza bermatu behar da. Emakumeen kontrako indarkeria duela gutxi aitortu da osasun-arazo publikotzat eta norberaren osasun-arazotzat, eta errealitate horren aurrean, jarrera eta portaera profesionalak modu eraginkorrean alda daitezten, prestakuntza espezifikoa behar da.

NORK ESKU HARTZEN DU

Nafarroako Foru Komunitateak emakumeei arreta ematen die Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak dituen hainbat zerbitzutan:

- **Lehen Mailako Arretako Osasun Zentroak**
- **Larrialdi Zerbitzuak, ospitalekoak eta ospitale kanpokoak**
- **Sexu- eta Ugalketa-osasunaren Arretarako Zentroak (SUOAZ)**
- **Osasun Mentaleko Zentroak**

Esparru ezberdinetan (Oinarrizko Osasun Laguntza, Ospitale Larrialdiak eta Sexu- eta Ugalketa-osasunaren Arretarako Zentroak), funtsezko hainbat pertsona identifikatzen dira, protokoloa ezagutarazteko ardura dutenak, beharrezko den kasuetan aktibatu dadin. Gainera, estamentu guztietako osasun-arloko langileak inplikatzeko dituzte, emakumeen kontrako indarkeria-kasuak goiz detektatzeko.





JARDUTEKO PROZEDURA

Jarduketa
bi mailatan
eginen da:



Indarkeria «ezkutuaren» detekzioa eta tratamendua

Indarkeria «ezkutua», hau da, emakumeek esplizituki adierazten ez dutena eta kontsultaren arrazoi zuzena ez dena, edozein osasun-zerbitzutik identifikatu behar da; horretarako, kasuak goiz detektatzen lagunduko duten susmorako adierazleak ezarri behar dira.



Larrialdi-arreta

Bi mailetarako, arriskua balioesteko eskala erabiliko da, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren **Osasun ekintzarako 2012ko protokolo komuna, genero indarkeriaren aurrean** izeneko protokoloan jasotzen dena. Gainera, esku-hartzeko barne-zirkuituak ezarriko dira osasun-zentro bakoitzean.

INDARKERIA «EZKUTUAREN» DETEKZIOA ETA TRATAMENDUA

Indarkeria ezkutua detektatzeko, horri heltzeko eta tratatzeko –Oinarrizko Osasun Laguntzako Osasun Zentroetan edo Osasun Mentaleko Zentroen bidez detektatzen da orokorrean–, Lurralde arteko Osasun Kontseiluak zehazten dituen jarraibideen arabera jardunen da. Kontseilu horrek, bertako Genero Indarkeriaren batzordearen bitartez, Osasun ekintzarako protokolo komuna, genero indarkeriaren aurrean izeneko protokoloa egin zuen 2006an, Estatuko Osasun Sistema osoan aplikatzeko. Protokoloak susmorako adierazleak zehazten ditu Oinarrizko Osasun Laguntzako Zentroetarako, baita sor daitezkeen egoera ezberdinetarako jarduketa-plan zehatzak ere, emakumeek indarkeria-egoeran daudela aitortzen al duten aintzat hartuta eta profesionalak hautematen duten arriskuaren arabera. Bereziki garrantzitsua da tratu txar psikologikoa diagnostikatzea; izan ere, emakumeengan erruduntasun-sentimendua eragiten du, eta beste indarkeria-egoera batzuen aurrean babesgabe eta ahul uzten ditu. Detekzioa eta diagnostikoa bezain erabakigarria da hautemandako kasuei behar bezala heltzea.





Osasunaren Munduko Erakundeak, **Violence Against Women: A Priority Health Issue** txostenean («Emakumeen Aurkako Indarkeria: Lehenasunezko Osasun-ara-zoa»), zera gomendatzen die osasun-arloko langileei: «Ez eduki galdetzeko beldurrik. Jendeak uste ohi duenaren aurka, emakume gehienak prest egoten dira tratu txar-rrak jasotzen dituztela onartzeko, galdera zuzenean eta baloraziorik egiteko asmorik gabe egiten zaienean. Egia esan, emakume asko norbaitek galdera egiteko zain egoten dira».

INDARKERIA EZKUTUA: JARDUKETARAKO ALGORITMOA

LEHENENGO BISITA Historia klinikoa zabaltzea




Arazo psikosozialei heltzeko galderak:

Zer moduz doaz gauzak etxean? Pozik al zaude zure bikotekidearekin eta senideekin duzun harremanarekin?



Kontsultan egin beharreko bilaketa aktiboa, susmorako adierazleak aintzat hartuz



Iturria: **Genero-indarkeriaren aurrean osasun-arloan jarduteko protokolo komuna.**
Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. 2012.





LARRIALDI-ARRETA: INDARKERIA FISIKOA, PSIKOLOGIKOA ETA SEXUALA

Indarkeria fisiko edo sexualaren ondoriozko larrialdi-arreta **Nafarroan Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Kontra Batera Jarduteko Protoloaren Profesionalentzako Gida** (2017) sistematizatzen da. Bertan, osasun-zerbitzuen lankidetzaz aurreikusten da, gainontzeko polizia- eta gizarte-zerbitzuekin eta zerbitzu judizial eta juridikoekin. Larrialdi-egoerak Nafarroako edozein osasun-zerbitzutan gerta daitezke.

Indarkeria fisiko eta psikologikoaren kasuan, larrialdietako osasun-arreta larrialdi-egoeretarako aurreikusita dauden osasun-instalazioetan ematen da. Arreta emateaz gain, derrigorrezko lesioen inguruko txostena egin, eta dagokion epaitegira igorriko da nahitaez. Gainera, beharrezkoa denean, pazienteak Ospitale Zentro batera bideratuko da.






Sexu-indarkeriaren kasuak ginekologia eta obstetria zerbitzura (Iruñeko Ospitale-gunea, Tuterako Reina Sofia Ospitalea eta Lizarrako Garcia Orcoyen Ospitalea) bideratuko dira. Osasun-arreta emateaz gain, Auzitegiako Medikuntza Zerbitzuari ohartaraziko zaio, larrialdiko kontrazepzioa emanen zaio emakumeari eta DBAB eta BAIT baliabideei buruzko informazioa erraztuko zaio, arretak jarraipena izan dezan eta emakumea epe ertain eta luzean errekupera dadin.

SEXU-INDARKERIA: JARDUKETARAKO ALGORITMOA

Sexu-erasoa: Ginekologiako ospitale-zerbitzuak



(1) STI: sexu-transmisiozko infekzioak.

(2) SUOAZ: Sexu- eta Ugalketa-osasunaren Arretarako Zentroak.

Iturria: Nafarroako Berdintasunerako Institutua, **Nafarroan Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Kontra Batera Jarduteko Protokoloa** oinarrituz. NBI 2017

B) POLIZIA ESPARRUA

Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 31.3 artikulua Estatuko, erkidegoko eta tokiko segurtasun-indar eta -kidego guztien esku uzten du biziraun duten biktimen babes. Polizia-eremu horri jarduera hauek dagozkie:

- Emakumeen kontrako indarkeria prebenitzea, poliziak egoera bakoitzaren arriskua baloratuta.
- Emakumeei babes osoa ematea, salaketa jartzen den unetik. Esku hartu duen polizia-kidegoak emanen du babes hori.
- Biziraun duten biktimak babesteko neurri judizialak betetzen direla kontrolatzea eta horien jarraipena egitea.
- Froga-jarduera bermatzea, jarraitzen diren prozesuetan.





Era berean, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legeak, VII. tituluan, biziraun duten emakumeek poliziaren arreta eta babes eraginkorra jasotzeko duten eskubidearekin lotura duen guztia jasotzen da. Eskubide horren arabera, berehalako eta kalitatezko laguntza eman behar da salaketa bideratzeko, salatutako egintzen ikerketa sakonaren eta babes eraginkorraren bidez. Gainera, Foruzaingoari dagokionez, profesionalen espezializazioa aurreikusten da, honako hauen bidez: hasierako eta etengabeko prestakuntza, polizia-jarduketarako protokoloak, biktimei arreta emateko espazioen kalitatea eta babes eraginkorra emateko zenbait neurri.

JARDUTEKO PROZEDURA

Nafarroako poliziek arretarako zerbitzuak ematen dizkiete biziraun duten biktimei, Poliziak Genero-indarkeriaren Arriskua eta Biktimen Segurtagunaren Kudeaketa Balioesteko Protokoloaren arabera, zeina Segurtagunaren Estatuko Idazkaritzak onetsi baitzuen 7/2016 Instrukzioaren bidez. Protokoloak zera aurreikusten du:

A. SEGURTASUNENKO INDARREN ETA KIDEGOEN JARDUKETA, GENERO-INDARKE-RIAREN ETA ETXEKO INDARKERIAREN BIKTIMAK BABESTEKO

Indarkeria jasan duten emakumeen laguntzari eta babesari lehentasunezko arreta emateko helburuarekin eta, ahal den neurrian, indarkeria horren eraginak leuntzeko, emakumeen kontrako indarkeriaren tratamenduan espezializatutako funtzionarioen presentzia sendotuko da, segurtaguneko indarren eta kidegoen unitate guztietan, baita arriskua balioesteko tresnen eta adierazleen inguruko prestakuntza espezi-fikoa ere.

Polizia-ikerketaren faseko jarduketa:

- Emakumeak arrisku-egoeran dauden eta egoera horrek zer intentsitate duen zehazteko miaketa-jarduerak.
- Emakumei laguntza juridikoa jasotzeko aukera dutela jakinaraztea.
- Arrisku-egoera une bakoitzean balioestea.
- Neurri espezifikoa abiaraztea, emakumeen eta haien senideen bizitza, osotasun fisikoa eta eskubide eta interesak babesteko.
- Ustezko erasotzailea atxilotzea eta epailearen esku uztea.

Salaketa jasotzea eta atestatua idaztea:

- Ezagutzen diren datu guztiak jasoko dira, aurrekari gisa.
- Begiz ikuskatzeko eta biktimari deklarazioa jasotzeko egjnbideak, ahal dela, argazkien eta beste bitarteko tekniko batzuen bidez dokumentatuko dira.
- Emakumearen edo haren legezko ordezkariaren, salatutako pertsonaren





edo ustezko erasotzailearen eta lekukoaren presentzia bermatuko da, auzia ezagutuko duen eskumendun Agintari Judizialaren aurrean (Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Epaitegia, Guardiako Instrukzio Epaitegia).

- Ustezko erasotzailea identifikatzea, aurkitzea eta kontrolatzea.
- Espazio fisiko berdinean erasotzaileak eta biktimak, haren seme-alabek eta senideek topo egin dezatela saihestea.

Babeserako eta segurtasunerako neurri judizialen kontrolaren eta jarraipenaren baitako jarduketa:

- Arriskua banaka aztertzea.
- Ebazpen judizialaren edukiaren analisia (gerturatzeko debekuaren metrokopurua edo eremua, debekua bete ez dela egiaztatzeko tresna teknologiko egokiak).
- Arrisku egoerarako egokiak diren babes neurriak hartzea.
- Jarraipen edo kontrol txostenak egitea.

Biktima bakoitzari egokitutako Segurtasun Planarekin lotura duten norberaren babeserako neurriak:

- Biktima bakoitzaren arrisku-mailari egokitutako norberaren babeserako neurriei buruzko informazioa.
- Seme-alaba adingabeak dituzten biktimentzako norberaren babeserako neurriei buruzko informazioa.

B. URRUNTZE NEURRIEN BETETZE ERAGINKORRA

Segurtasuneko indar eta kidegoek egilea atxilotzea: inputatuak-urruntze neurria doloz betetzen ez badu, emakumearen arrisku-egoera objektiboki areagotzen da, eta, beraz, arau-hauslearen berehalako atxiloketa abiaraziko da. Jarraian, atxilotua epailearen esku jarriko da berehala, eta dagokion atestatua egingen da. Jarduketa hori Fiskaltzari jakinaraziko zaio.

Agerraldia, urruntzea ez betetzeagatik zitazioa egingen zaie inputatuari, abokatuaren asistentziarekin, Fiskaltzari eta gainontzeko alderdi pertsonatuei. Babes-aginduarentzako entzunaldiaren baitan egiten denean, biktima edo haren legezko ordezkaria deituko dira, baita babes-agindua eskatu duen pertsona ere, beste bat baldin bada.

Behin-behineko espetxealdiaren neurria edo biktima babesteko beste neurri batzuk hartzea: agerraldia egin ondoren, eta kasu bakoitzean legeak eskatzen dituen baldintza betetzen badira, organo judizialak behin-behineko espetxealdiaren neurriak edo beste neurri astun batzuk har ditzake, inputatuaren zirkulatze eta mugitzea askatasunari eragiten diotenak.





C. SEGURTASUN INDAR ETA KIDEGOEN ETA ORGANO JUDIZIALEN ARTEKO KOMUNIKAZIOAK

Segurtasun-indar eta -kidegoen komunikazioak organo judizialei:

Irizpide orokor gisa, polizia judizialak atestatuak eta babes-aginduaren eskaria edo babeserako zein segurtasunerako beste kautela-neurri batzuen eskaria igorriko ditu Emakumearen kontrako Indarkeriaren Epaitegira. Posible ez denean, atxilotua, halarik balego, atxilotetaren tokiko Guardiako Instrukzio Epaitegiaren esku jarriko da

Organo judizialen komunikazioak segurtasun-indar eta -kidegoei:

Agintaritza judizialak segurtasun-indar eta -kidegoei ebazpenak komunikatuko dizkie, ebazpenek babes-agindua, kautela-neurriak edo biktimen babeserako zein segurtasunerako beste neurri batzuk dekretatzen dituztenean, neurri horiek, delitu-prozesuen instrukzio-fasean, aldatzen eta kentzen direnean, edo neurriak sententzian mantentzen direnean, balizko helegiteak izapidetzen diren bitartean. Organo judizialak auzitegi-medikuen taldeari txosten bat egiteko eska diezaioke, arrisku-adierazleen konkurrentziaren inguruan, baita gizarte-laneko eta psikologiako profesionaleri ere, Delituaren Biktimen Arretarako Bulegoan, Talde Psikosozialetan eta Justizia Administrazioaren zerbitzura egon daitezkeen beste organismo batzuetan ematen badituzte zerbitzuak. Era berean, egile berberaren aurka hasi diren beste zigor-arloko prozesu batzuen aurrekariak ere eska ditzake.

Polizia-unitateak agintaritza judizialaren komunikazioren bat jasotzen duenean, babes-agindu bat eman edo urruntze-neurri bat hartu dela edo hori kendu edo aldatu dela adieraziz, komunikazioa berehala sartuko da Estatuko Seinalamenduen Datu Basean.

NORK ESKU HARTZEN DU

Edozein polizia-kidegok esku-hartu dezan, polizia-etxeetan berariaz salaketa jarri behar da, edo telefono hauetara deitu: 062 (Guardia Zibila), 091 (Polizia Nazionalaren Kidegoa), 092 (Udaltzaingoa) edo 112 (Nafarroako Foruzaingoa).

Nafarroan lau polizia-kidegok jarduten dute: **Foruzaingoa, Udaltzaingoa, Polizia Nazionalaren Kidegoa eta Guardia Zibila**. Lau polizia-kidegoek Barne Ministerioaren Genero-indarkeria kasuetarako osoko segimendurako sistemaren (**VioGen**) datu-basearekin egiten dute lan. VioGen-ek polizia-kidegoen koordinazioa errazten du; biktimen babesa hobetzen du; komunikazioa errazten du, biktimaren etxebizitza-aldaketagatiko lekualdatzeen ondorioz, kasuak bideratu behar direnean; eta polizia-neurri bateratuak hartzea ahalbidetzen du, polizia-kidego guztiek erabili beharreko Arriskua Baloratzeko Protokoloaren arabera (7/2016 Instrukzioa, Segurtasunaren Estatuko Idazkaritzarena, zeinaren bidez protokolo berria ezartzen baita poliziari genero-indarkeriaren arriskua eta biktimen segurtasunaren kudeaketa balioetsi ditzan).

Orokorrean, edozein polizia-kidegok esku hartzen duenean, emakume batek sa-





laketa bat egiten duen unean eta hori formalizatu aurretik, berehala jarriko zaizkio honako zerbitzu hauek eskura:

- **Aholkularitza judizialeko doako zerbitzuak**, emakumeentzako aholkularitza juridikoko zerbitzuaren guardia-zerbitzu etengabearen bidez.
- **Aholkularitza psikologikoko doako zerbitzuak**, Justizia Zerbitzu Sozialetik ematen den premia-zerbitzu psikologikoaren bidez.

Polizia-kidego guztietatik, emakumeen intimitaterako eskubidea bermatuko da, arreta toki egokietan emanez.

FORUZAINGOA

Foruzaingoaren baitan, Ikerkuntza Kriminalaleko Arloko Laguntzako Brigadak ikertzen ditu emakumeen kontrako indarkeriarekin lotura duten delituak. Talde espezializatua da, eta prestakuntza berezia du emakumeen aurkako indarkeriaren arloan. Era berean, Tuterako polizia-etxearen arreta-eremuan, polizia-arretaren bulegoak jasotzen ditu salaketak, ikerketaz eta instrukzioaz Tuterako Polizia Judizialaren taldea arduratzen den bitartean. Unitate horietako langileek ere prestakuntza berezia dute, erantzun beharreko ekintzak ondo garatu daitezzen.

Foruzaingotik hainbat babes-tresna jartzen dira emakumeen eskura, poliziak egoera bakoitzean egiten den arrisku-balioespenaren arabera. Hauek dira tresnak:

- **Etengabeko Babeserako Sistema.** Foruzaingoak eta Justizia Zerbitzu Sozialak arriskua muturrekotzat jotzen duenean, emakumeei Etengabeko Babeserako Sistema eskaintzeko aukera dago.
- **Jarraipenaz eta arriskuaren etengabeko balioespenaz arduratzen diren langileak.** Polizia-etxe bakoitzean, biziraun duten biktimen jarraipenaz arduratzen diren langileak daude. Gainera, polizia-etxe bakoitzaren baitako langileek egiten dituzte zainketak eta beste polizia-jarduketak batzuk, Herritarren Babeserako eta Arretarako Unitateen bitartez. Balioespenetatik ondorioztatzen den arrisku-mailaren arabera, erregulatutako polizia-jarduketak abiaraziko dira, eta, kasu bakoitzean, VioGen-ek adierazitako babes-neurriak aplikatuko dira.

Foruzaingoaren beste mekanismo batzuk

- Biktimen arreta hobetzeko prozedurak, polizia-jarduketarako protokoloak aktibatuz, emakumeen kontrako indarkeriaren zenbait agerpenen aurrean, hala nola sexu-indarkeriaren aurrean.
- Koordinazioa Iruñeko, Burlatako, Barañaingo eta Zizur Nagusiko Udaltzaingoekin, udalerrri horietan bizi diren emakumeei arreta emateko eta haien jarraipena egiteko, Poliziak Genero-indarkeriaren Arriskua eta Biktimen Se-





gurtasunaren Kudeaketa Balioesteko Protokoloaren bidez, eta horretarako informatika-aplikazioaren bidez.

- Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko oinarritzko prestakuntza Foruzaingoko kide guztientzat. Polizia-etxe bakoitzeko Herritarren Babeserako eta Arretarako Unitateetako langileek prestakuntza espezializatuagoa dute, eta emakumeen kontrako indarkeria-egoeren aurrean lehenbiziko premiazko esku hartzea gauzatzeko prestakuntza dute.

IRUÑEKO UDALTZAINGOA

Poliziak esku hartzeko eskaera hainbat iturritatik hel daiteke:

- 092 telefonoko deiak Biktimek senideek eta gertakarien lekukoek dei dezakete zenbaki horretara.
- 112 SOS Nafarroa larrialdi-telefonoko deiak
- Poliziaren esku-hartzearen ondorioz detektatu diren kasuak
- Biktima polizia-etxera bertaratzea
- Gizarte-zerbitzuen eta Iruñeko Udalaren emakumeari laguntzeko zerbitzua-ren komunikazioa, errekerimendu judizialak eta beste edozein informazio-iturri

Iruñeko Udaltzaingotik, lehen esku-hartzea gertuen dagoen poliziak egingen du. Ondoren, Gizarte Babes eta Arretako Brigada arduratuko da babesaz, arretaz, ondorengo jarraipenaz eta beste zerbitzu batzuekin izan beharreko koordinazioaz, emakumeen kontrako indarkerian espezializatutako polizia bat hautatuz.

POLIZIA NAZIONALAREN KIDEGOA

Polizia Nazionalaren baitan, Polizia Judizialaren Brigada Probintzialaren Familia eta Emakumearen Unitatea –V. Taldea– dago. Emakumeen kontrako indarkerian prestakuntza espezializatua duen polizia-talde batek osatzen du hori, Nafarroako Burutza Nagusia zein Tuterako polizia-etxean, eta ikerketaz eta biktimen babesaz arduratzen da. Gainera, era subsidiarioan, Salaketetarako eta Herritarren Arretarako Bulegoak Familia eta Emakumearen Unitatearen ekintza osatzen eta babesten du. Beraz, bulegoko langileek ere oinarritzko prestakuntza dute emakumeen kontrako indarkeriaren arloan.

Unitate horiek Polizia Judizialaren Brigadako hainbat talderen babesa dute, eta horien espezializazioak ikerketei ahalik eta berme handienarekin aurre egitea du helburu.





Babesaren eremuan, Familia eta Emakumearen Unitateak hiritarren segurtasunerako unitateen babesa du, hala behar denean, biktimen eta beren ingurunearen analititik eta jarraipenetik ondorioztatzen diren arrisku-mailen arabera.

Era berean, babeserako tresna osagarriak ditugu, administrazio nagusiaren hitzarmen eta jarduketetatik eratorriak, eta, zehazki, Telebabeserako Zerbitzua eta neurrien kontrol telematikorako tresnak.

Jarduteko unitate hori guztia abiarazteko, 091 larrialdi-telefonora deitu behar da.

Bestalde, lurralde bakoitzeko Familia eta Emakumearen Unitateak Familia eta Emakumearen Unitate Nagusiaren menpe daude, eta hori da emakumearen kontrako indarkeriaren arloan dagoen kontaktu- eta erreferentzia-puntu bakarra.

Unitate nagusi horrek familia-inguruan eta emakumearen aurka egiten diren delituen ikerketa eta jazarpena koordinatzen ditu, baita emakumearen babesa ere; indarkeria honek sortzen duen gizarte-arazoaren aurkako ekimenak eta neurriak sustatzen ditu; eta gai honetan eskumena duten Estatuko zein nazioarteko beste organismo batzuekin izan beharreko koordinazioa sustatzen du.

GUARDIA ZIBILA

Guardia Zibilak esku-hartzeko sistema integral bat dauka, emakumeen kontrako indarkeriaren kasuetan esku hartzeko eta, ondoren, kasu bakoitzaren jarraipena egiteko eta emakumeak babesteko. Horretarako, unitate guztiek parte hartzen dute, eta prozedura hori abiarazteko, Guardia Zibilaren 062 larrialdi-telefonora deitu behar da.

Poliziak esku hartzeko eskaria eginez gero, prozedura hau jarraitzen da:

- Lehen erantzuna gertuko postu edo patruilak gauzatzen du, berehalakotasuna eta gertutasuna bilatze aldera. Bertatik, esku-hartzearen ardura hartuko da eta emakumeen babesa erdigunean jarriko da, emakumearen etxebizitzatik gertuen dagoen Guardia Zibilaren postutik (polizia-etxetik) betiere. Horretarako, kasua jarraipenerako erreferentziatzeko pertsona bat izanen du, eta lurraldean jarduten duten unitate guztiek esku hartuko dute emakumearen segurtasunean.
- Kasua konplexuagoa edo larriagoa baldin bada, Lizarrako, Iruñeko, Tafallako eta Tuterako Arreta Espezializatuko Puntuetara bideratuko da.
- Muturreko kasuez Iruñeko EMUME (emakumeengan eta adingabeengan espezializatutako taldea) arduratuko da. Arreta Espezializatuko Puntuek zein EMUME Polizia Judizialaren Unitate Organikoaren menpe daude, eta jarduketa guztien ikuskapen teknikoaz eta probintzia-mailan esku hartzen dutenen eguneraketaz eta etengabeko prestakuntzaz arduratzen dira. Mardrien EMUME nagusia dago, eta unitate guztien, bisitatzen dituen nazioko





zein nazioarteko foroan eta EMUMErekin elkarlanean aritzen diren instituzioen esperientziak hartzen ditu kontuan, prestakuntza, doktrina eta jarraibideak bateratzeko eta eguneratzeko.

Guardia Zibilaren prozedurak –besteak beste, genero-indarkeriaren kasuen Protokoloak eta Jarraipen Integralak–, orokorrean, Polizia Nazionalaren prozedurekin bat datoz; izan ere, Barne Ministerioaren Segurtasunaren Estatuko Idazkaritzaren jarraibide bateratuetan dute jatorria. Prozedura horiek, Guardia Zibilaren eremuari dagokionez, Polizia Judizialaren eta Arau Teknikoen Eskuliburuan zehazten dira –derrigorrez bete behar dute Estatu osoko Polizia Kidego Unitate guztiek–, baita Jarduketan Urteroko Planean ere.

Indarkeria egoeran dauden emakumeen babeserako elementu osagarri gisa, administrazio nagusiaren hitzarmen eta jarduketetatik ateratako elementuak daude, batez ere: Telebabeserako Zerbitzua eta neurrien kontrol telematikorako tresnak.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN GAINEKO GOBERNU-ORDEZKARITZAREN KOORDINAZIO-UNITATEA

Genero Indarkeriaren kontrako Premiako Neurrien Katalogoak, 2006ko abenduaren 15ean Ministroen Kontseiluak onetsitakoak, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Unitateen sorrera jasotzen du, Gobernuo Azpiordezkaritzetan. Bere aldetik, Genero Indarkeriaren Sentsibilizatorako eta Prebentziorako Plan Nazionalak (koordinazioaren k Ardatza), aipatutako Ministroen Kontseiluan onetsiak, honakoa zehazten du: «autonomia-erkidegoetako Gobernu Ordezkaritzek, genero-indarkeriaren arloan, dagozkien lurralde-eremuetan garatzen diren jarduketan jarraipena eta koordinazioa berma dezaten», Administrazio Publikoetako Ministerioak, Barne Ministerioak eta Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak Instrukzio Bateratua ebatziko dute.

2013an, Koordinazio Unitateen funtzionamendua zehazten zuen 2007ko instrukzioa gairiditu eta eguneratu zen, Justizia, Barne, Ogasun eta Administrazio Publikoetako, Enplegu eta Gizarte Segurantzak, eta Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Beldintasun Ministerioen Instrukzio Bateratuaren bidez. Instrukzio horretan, Koordinazio Unitatearen eta Emakumearen kontrako Indarkeriaren Unitatearen funtzionamendua jorratzen zen, unitate horiei esleitutako funtzioak eguneratzeko helburuarekin. Hala, jardun-eremua zabaldu zen, genero-indarkeriara –Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoaren 1,1 artikulua xedatzen duen bezala–, eta, horrez gain, sexu-esplotazioa helburutzat duen salerosketaren aurkako borrokara ere bai. Testuinguru horretan, sexu-esplotazioa helburutzat duen salerosketaren aurkako borrokatzeko, komunikazio- eta koordinazio-bideak ezarri berak dira salerosketaren biktimen detekzio-, identifikazio-, laguntza- eta babes-prozesuetan esku hartzen duten administrazio eta instituzioekin.

Urtarrilaren 23ko 200/2012 Errege Dekretuak, Osasun, Gizarte Zerbitzuak eta Beldintasun Ministerioko oinarriko egitura organikoa garatzen duenak, eta 1887/2011





Errege Dekretua aldatzen duenak, abenduaren 30ekoa, ministerio sailen oinarritzko egitura organikoa ezartzen duena, honako hau zehazten du: Emakumeen kontrako Indarkeriaren kontrako Koordinazio Unitateak eta Emakumearen Kontrako Indarkeriaren Unitateak, funtzionalki, Ministerio horren menpe daude, Genero Indarkeriaren Gobernu Ordezkaritzaren bidez, eta, azken horrek eginen ditu lan-prozeduren eta -prozesuen inguruko jarraibideak. Era berean, unitate horiek, organikoki, Gobernu Ordezkaritzaren edo Azpiordezkaritzaren pertsona titularren menpe daude, eta Idazkaritza Nagusira atxikita daude.

Unitate horien **funtzioen** artean, honakoak daude:

- Estatuko Administrazio Orokorreko baliabideak eta zerbitzuak jarraitzea eta koordinatzea, lurraldeko genero-indarkeria egoerei arreta emateko.
- Lankidetzeta eta koordinazioa, akordio honen esparruan, indarkeriaren arloan eskumenak dituzten administrazio autonomikoekin zein tokiko administrazioekin (Nafarroako Berdintasunerako Institutua, segurtasun-indar eta -kidegoak, Espetxeetako Administrazioa, Justizia Administrazioa, Delituen Biktimei Arreta emateko Bulegoa, etab.).
- Indarkeria-egoeren jarraipen egokitua egitea eta emakumeen aurkako indarkeriaren eraginezko heriotza-kasuetan jardutea.
- Indarkeriaren inguruko informazio-, sentsibilizazio- eta prebentzio-kanpainetan parte hartzea, Eskolako Bizikidetzeta eta Segurtasuna Hobekuntza Zuzentzeko Planaren esparruan esku hartzea.
- Profesionalen prestakuntza eta espezializazioa sustatzea eta horretan lankidetzan aritzea.
- Sexu-esplotazioa helburutzat duen emakume-salerosketaren esparruko funtzioak.
- Genero Indarkeriaren Gobernu Ordezkaritzak esleitzen dion beste edozein jarduera.

C) ESPARRU JURIDIKO ETA JUDIZIALA

Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak printzipio artezkarietako bat da Botere Publikoen baliabide eta tresnak koordinatzea, ziurtatzeko emakumeen kontrako indarkeria-egitateen prebentzioa eta, hala denean, egitate horien arduradunei ezarri beharreko zehapen egokia.

Lege Organiko horren 32. artikulua zehazten duenez, Botere Publikoek elkarlanean aritzeko planak eginen dituzte, euren jardueren antolaketa bermatzeko, emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioari, laguntzari eta jazarpenari begira, eta elkarlan horretan arituko da, besteak beste, Justizia Administrazioa. Lege Integralaren aurretik eta ondoren, Botere Publikoek hainbat koordinazio- eta jarduketa-plan egin





dituzte emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioari, laguntzari eta jazarpenari begira. Hauek dira protokoloak: *Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko jurisdikzio zibilaren eta zigor-arloko jurisdikzioaren arteko koordinazio-protokoloa; Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimak babesteko segurtasuneko indarren eta kidegoen jarduketarako eta organo judizialekiko koordinaziorako protokoloa; Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua ezartzeko protokoloa; Justizia eta Barne Ministerioen arteko lankidetzeta-hitzarmena, Genero-indarkeria kasuetarako osoko jarraipenerako sisteman parte hartzeko; eta Genero-indarkeriaren kontrako jarduketa judizialerako irizpideen gida.*

Bere aldetik, Delituen Biktimen Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legeak lege-testu bakar batean biltzen du delituen biktima guztien prozesuko zein prozesuz kanpoko eskubideen katalogo orokorra, eta Europar Batasunaren Zuzentzarauen transposizioa egiten du bertan. Besteak beste, hainbat lege-aldaketa txertatzen ditu, genero-indarkeriaren eta pertsonen salerosketaren biktimei eragiten dietenak: pertsona horien laguntza eta babesa hedatzen da; ezkontidea ez da biktimatzat hartzen, egitateen arduraduna denean; emakumeen kontrako indarkeria-inguruan dauden adingabeak biktima zuzen gisa hartzen dira, eta seme-alaben babesa sendotzen da babes-aginduen esparruan.

Azkenik, apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak, Emakumeen kontrako Indarkeriari Nafarroan aurre egitekoak, VIII. tituluan, laguntza juridikoari eta justiziara jotzeari buruzkoan, honako alderdiak garatzen ditu: laguntza juridiko espezializaturako biktimen eskubidea, laguntza juridikoaren zerbitzu-ematea eta esku-hartze profesionalaren kalitatea, esparru judizialeko funtzionarioen eta lan-kontratudunen espezializazioa, laguntza ematea fiskalen eta epaileen prestakuntzan, segurtasunerako neurriak prozedura judizialean eta zentzumen desgaitasunak dituzten emakumeen eta bertako hizkuntza ez dakiten emakumezko atzerritarren interpretea izateko eskubidea.

Epaileen eta auzitegien burujabetasun osoa aitortzen da, Konstituzioaren eta legeen esparruaren barnean euren funtzioak gauzatzeko orduan, eta ikuspegi horretatik, jarduketari lotutako hainbat gogoeta eta prozedura planteatzen dira, eragile juridikoek behatu beharrekoak.

NORK ESKU HARTZEN DU ETA JARDUTEKO PROZEDURA

NAFARROAKO AUZITEGIKO MEDIKUNTZAREN INSTITUTUA

Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuak (NAMI) hainbat prozeduratan eta hainbat profesionalekin jarduten du, indarkeriaren biktima diren emakumeen arre-taren esparruan, jarraian azaldu bezala:





- Guardiako auzitegi-medikuak berehala ematen die arreta emakumeen lesio fisikoei, Emakumearen kontrako Indarkeriaren Epaitegiak eskaria egin ondoren.
- Medikuntzako, psikologiako eta gizarte-laneko profesionalen diziplina anitzeko talde batek egiten du emakumeen balioespina, indarkeria psikikoko egoerei edo etengabeko indarkeriaren testuinguruari dagokienez.
- Egoera bereziki ahulean dauden biktimei arreta ematen zaienean (adingabeak, desgaitasunen bat duten pertsonak, etab.), azterketa bat egiten zaio biktimari, prozesuaren aurretik osatutako proba gisa, ahal den neurrian emakumearen birbiktimizazioa ekiditeko.
- Sexu-erasoen biktimentzat ezarri den prozeduraren arabera, laguntza-talde eta auzitegi-talde banak elkarlanean eginen dute biktimen aitortpena, egintza bakar batean. Aitortpena berehala egiten da, eta auzitegi-medikuak azterketara joan behar du, biktimak egitateak salatu ez dituenean ere bai. Kaltetutako emakumeak baimena eman ondoren egiten da azterketa, eta ez da beharrezkoa alde aurretik salaketa jartzea, lesioak egiaztatzean eta laginak biltzean eraginkortasun handiagoa lortze aldera.

JUSTIZIA ZERBITZU SOZIALA

Justizia Zerbitzu Sozialak doako zerbitzu bat eskaintzen du, eremu juridiko, psikologiko eta sozialean kualifikatutako langileen eskutik, aholkularitza legala, soziala eta terapeutikoa emateko, emakumeek hala eskatzen dutenen edo langile tekniko espezializatuek kasua igortzen dutenean eta emakumeak espresuki baimentzen duenean. Era berean, zerbitzutik aditu-txostenak igor daitezke, epaitegiek hala eskatuta.

Biziraun duten biktimei aholkularitza integrala emateko helburuarekin, Justizia Zerbitzu Sozialetik jarduketa hauek egiten dira:

- Informazioa eta aholkularitza orokorra.
- Aholkularitza juridikoa eta doako asistentzia juridikoa jasotzeko eskubi-dea (emakumeen kontrako indarkeria-kasu guztietan automatikoki ematen da). Zerbitzutik, doako laguntza juridikoa jasotzeko eskaerei erantzuten zaie edo abokatu-elkargoekin batera izapidetzen dira.
- Babes psikologikoa, etengabea eta premiazkoa. Premiazko laguntza psikologikoa 112 SOS NAFARROA telefonoaren bidez aktibatzen da, eta gertakariaren lekuan ematen da (polizia-etxea, Emakumearen kontrako Indarkeriaren Epaitegia, Instrukzio-epaitegia, Guardiako Epaitegia, etab.). Foru Komunitate osoan ematen da laguntza, egunean 24 orduz, urteko egun guztietan.





- Arriskuaren balioespena hainbat eragilerentzat (segurtasun-indar eta -ki-degoak, osasun-arloko profesionalak, epaileak, etab.).
- Nafarroako gizarte-baliabideei buruzko orientazioa eta indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak osatzeko laguntza.
- Indarkeriaren biktimen egiaztapenen igorpena, behar den kasuetan.

Justizia Zerbitzu Sozialaren datu-basean, Nafarroako Foru Komunitateko epaitegiek igorritako babes-aginduak jasotzen dira. Epaitegiek zerbitzu horretara bidaltzen dituzte arlo horrekin zerikusia duten epaien eta autoen kopiak.

Zerbitzutik, era berean, hainbat programa terapeutiko kudeatzen dira, tratu txarrak eta sexu-erasoak eragin dituzten adin nagusiko zein txikiko pertsonen berreziketarako. Programara epai judizial bidez sartu ohi dira kasu gehienetan, baina nor bere kabuz ere sar daiteke.

BULEGO JUDIZIALA

Bulego judizialak bereziki zaindu behar du epaitegian dauden emakumeen tratua. Horretarako, esku hartzean honako hauek kontuan hartuko dira:

- Emakumeen inguruabar pertsonalak hartuko dira kontuan, eta konfiantza adieraziko zaie uneoro. Horretarako, harrera egin eta modu aktiboan entzunen zaie, kontatzen dituzten egitateekiko eta kontatzeko moduarekiko errespetua adieraziko da, eta birbiktimizazioa saihestuko da, emakumei zein haien ekintza eta erabakiei buruzko aurreiritziak saihestuz.
- Emakumeekin hizkera ulergarria erabili behar da, eta beharrezko bada, interpreteek esku hartuko dute. Emakumeen zitazioetan, aginterazko edo mehatxuzko tonua duten adierazpenak saihestuko dira, eta epaiketean agerrialdia egiteko beharra azpimarratuko da. Biktima orok du ulertzeko eta ulertua izateko eskubidea, edozein jardueran: salaketa jartzean, prozesu penalean zehar eta, hala denean, ebazpenaren betearazpenean. Gainera, auzia largesteko erabakiaren berri izateko eskubidea du, eta emakumeak berak errekurritu ahal izanen du hori, une hartara arte prozeduraren zati ez izan arren.
- Zigor-arloko prozedurako ekintzak, ikerketa-fasea barne, egiten dituzten instalazioak biktimen eta senideen, batetik, eta arau-haustearen susmagarriaren edo akusatuaeren artean, bestetik, zuzeneko kontaktua saihesteko moduan antolatuta egonen dira, Prozedura Kriminalaren Legearekin bat etorritik.
- Zigor-arloko ikerketaren ardura duten agintariek eta funtzionarioek biktimei, behar denean, deklarazioa hartzen zaiela bermatuko dute, justifikatu gabeko atzerapenik gabe, baita biktimei deklarazioa ahalik eta gutxienetan





hartzen zaiela ere. Biktimekin, prozesu-arloko ordezkariak eta, hala dago-kionean, legezko ordezkariak gain, beren aukerako pertsona bat ere egon daiteke esku hartu behar duten eginbideetan, betiere, modu arrazoituan, aurkakoa ebazten ez bada.

- Behar diren neurriak hartuko dira, biktima guztien eta horien senideen intimitatea babesteko eta, bereziki, biktima adingabeak edo babes berezia duten biktima desgaituak identifikatzea erraz dezakeen informazio oro eza-gutaraztea eragozteko.
- Biktimen egoera banan-banan balioetsiko da, bakoitzaren babes-behar bereziak zehazte aldera. Ondoren, beharrezko babes-neurriak hartuko dira.
- Emakumeek abokatuen laguntza pribaturik hautatu ezean, salaketa jarri aurreko unetik berehalako eta doako laguntza juridiko espezializatua jasotzeko eskubidea dutela jakinaraziko zaie. Abokatuen laguntza jasotzeko eskubidea errazte aldera, eta emakumeak eta ustezko erasotzaileak epaitegian topo egin ez dezaten, egoitza judizial guztietan bulego bat edukitzeko ahalegina egingen da, emakumeei arreta konfidentzialtasunez eman ahal izateko. Bi alderdiek topo egin dezatela saihestu ezin denean, emakumeari beharrezko bitarteko guztiak erraztuko zaizkio, uneoro profesional bat alboan izan dezan.
- Babes-agindua eskatzeko aukeraren berri emanen zaie emakumeei, Prozedura Kriminalaren Legearen 544. artikuluan xedatu bezala. Horrez gain, babes-aginduaren ondorio zibil eta penalak jakinaraziko zaizkio. Era berean, kasu hauetarako Foru Komunitatean eskuragarri dauden baliabide eta prestazioei buruzko informazioa emanen zaie, eta kontaktua erraztuko zaie gizar-te-zerbitzuekin, beste baliabide espezializatu batzuekin eta Nafarroako Gobernuaren Delituaren Biktimen Arretarako Bulegoarekin.
- Egoitza judizial guztietan informazio idatzia egonen da emakumeen kontrako indarkeriaren arloko baliabide eta zerbitzuen inguruan, eta Justizia Administrazioako langileek informazioa eskuragarri dagoela eta emakume guztiei heltzen zaiela bermatuko du.
- Inputatuak deklaratu ondoren eta beharrezkotzat jotzen diren txosten eta irizpenak egin ondoren, babes- edo kautela-neurriak hartzen badira, kasua instruitu duen eskumendun polizia-kidegoari jakinaraziko zaizkio.

Emakumeei eta beste organismo batzuei egiten zaizkien **ohartarazpen eta komunikazioei** dagokienez.

- Emakumeei eragiten dieten ebazpen judizial guztiak ahalik eta azkarren eta modu ulergarrian jakinarazten zaizkiela zainduko da, ustezko erasotzailearen kautela-neurriak edo emakumea eta haren gainontzeko senideak babesteko neurriak hartzen edo kentzen direnean, bereziki.
- Babes-aginduak ematen direnean, emakumeei etengabe eman behar zaie





informazioa inputatuaren egoera prozesalaren inguruan, baita kautela-neurrien irismen eta indarraldiaren inguruan ere. Epaitegiekin helburu horrekin hartzen diren ebazpenak igorriko dizkiote Koordinazio Puntuari (Justizia Zerbitzu Soziala), eta azken hori arduratuko da informazioa emakumeei bidaltzeaz.

- Ebazpen judizialak, babes-aginduak eta, bereziki, segurtasun-neurriak ezartzen edo aldatzen dituzten aginduak ahalik eta azkarren jakinaraziko zaizkie segurtasun-indar eta -kidegoei (Estatukoak, Foru Komunitatekoak eta udalerrietakoak), Justizia Zerbitzu Sozialari –babes-aginduen koordinazio-puntu gisa– eta Espetxeetako Administrazioari, beharrezko bada.
- Biktimari informazioa emanen zaio behar ez den atzerapenik gabe eta Delituen Biktimen Estatutuan zehazten denaren arabera,

Azaldutakoaz gain, Prozesuan parte hartu duen biktimak eskubidea izanen du eskubideak erabiltzeko orduan izandako gastuak, bai eta sortu zaizkion prozesuko gastuak ere, itzul diezazkieten, eta Estatuari sortutako gastuen ordainketak baino lehentasun handiagoa izanen du itzulketa horrek, baldin eta kondenaren epaian horiek ordaintzea ezartzen bada eta akusatua, biktimak eskatuta, zigortu egin badute, Fiskaltzak akusaziorik aurkeztu ez duen delituengatik edota biktimak aurkeztutako errekurtsioengatik artxibatzeko ebazpena errebokatu ondoren.

FISKALTZA

Fiskaltzaren funtzioetako bat da emakumeen kontrako indarkeriarekin zerikusia duten delituen biktimen eskubideak defendatzea eta babestea. Fiskaltzaren Estatutu Organikoko 3. artikulua 10. paragrafoak Biktimen babes prozesala zaintzeko ardua esleitzen dio, laguntza eta asistentzia eraginkorra jaso dezaten aurreikusita dauden mekanismoak sustatuz.

Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurri buruzko 1/2004 Lege Organikoan aurreikusitako kasuetan, Fiskaltzak igorriko du, beharrezko denean, genero-indarkeriazko egoeraren egjartzapen-titulua, egjartzapenak berak erregulatzen dituen eskubideen aitortpenerako. Hala egingen da, salbuespen gisa, babes-agindua eman ezin denean eta Estatuko Fiskaltza Orokorreko 2/2005 zk. instrukzioan zehaztutako baldintza eta aurrekontuen arabera.

Fiskaltzaren barruko Emakumearen kontrako Indarkeriaren aurkako Bulegoak beharrezko kontaktu instituzionalak mantenduko ditu instantzia judicial, polizial, sanitario eta asistentzialekin, baita abokatu-elkargo eta protokoloaren baitako beste organo batzuekin, emakumeen kontrako indarkeria-kasuen koordinazioa errazteko.





EMAKUMEEI LAGUNTZA JURIDIKOA EMATEKO ZERBITZUA (ELZ)

Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, 20. artikuluan, emakumeen doako laguntza juridikorako eskubidea erregulatzen du. Artikuluaren arabera, emakumeek eskubidea dute, doako defentsa eta ordezkaritza juridikoa izateko administrazio-prozesu eta -prozedura guztietan, halakoak jasandako indarkerian oinarritzen direnean zuzenean edo zeharka, baldin eta emakume horiek egiaztatzen badute auzitan aritzeko baliabiderik eza, urtarrilaren 10eko 1/1996 Legeak, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoak, ezarritakoaren arabera.

Apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitekoak, 63. eta 64. artikuluetan xedatzen du biziraun duten biktimen doako laguntza juridiko espezializaturako eskubidea, eta laguntza juridiko espezializaturako zerbitzu hori «Nafarroako abokatuen elkargo profesionalekin ituntzen ahalko dela» adierazten du. Nolanahi ere, ofiziozko txanda bat osatuko da emakumeen aurkako indarkeriaren arloko espezialista batzuekin, zeinak arduratuko baitira foru legean aurreikusitako indarkeria motaren baten biktima izan diren emakumeen abokatu-laguntzaz eta -ordezkaritzaz. Artikulu horietan, ofiziozko txanda osatuko duten profesionalek zer baldintza bete behar dituzten eta abokatuen laguntzak zer irismen izanen duen zehazten da.

Laguntza juridikoaren ezaugarri garrantzitsuenen artean, laguntza juridiko espezializatua, berehalakoa eta kalitatezkoa bermatzeko beharra dago. Abokatuen laguntza funtsezkoa da babes judizial eraginkorra lortzeko eta defentsa-eskubidea behar bezala erabiltzeko; izan ere, bereziki kontuan hartu behar da Emakumearen kontrako Indarkeriaren epaileek, entzunaldirako ordutegietan, edo Guardiako Instrukzio epaileek, arlo zibileko neurriak ere hartu behar dituztela, etxebizitzaren erabilera eta gozamenari, seme-alaben harremanari eta elikagaien hornikuntzari eragiten diotenak.

Abenduaren 2ko 1455/2005 Errege Dekretuak, Doako Laguntza Juridikoaren Erregelamendua onesten duenak, 27., 28. eta 29. artikuluetan adierazten du emakumeen berehalako orientazio juridikoa, defentsa eta laguntza abokatu-zuzendaritza bakar batek hartuko dituela bere gain, beharrezko den unetik aurrera, eta administrazio-prozesu eta -prozedura guztiak amaierara arte barne hartuko dituela, epaiaren betearazpena barne.

Doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidearen eskuragarritasun egokia bermatze aldera, Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoaren 18. eta 20. artikuluetan xedatutakoaren arabera, abokatuak emakumeari erraztuko dizkiote doako laguntza juridikoa eskatzeko inprimakiak. Era berean, aldez aurretik, laguntza juridikoa lortzeko baldintzen berri emanen diote, eta, biktima izateari uzten badio, une horretatik aurrera zerbitzu-sariak eta eskubide ekonomikoak ordaindu beharko dituela azalduko diote.

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak, 1998. urtetik, doako laguntza juridikoa emateko zerbitzua eskaintzen du Nafarroako lau Abokatutza Elkargoen eskutik (Iruña, Tuter, Lizarra eta Tafalla). Laguntza juridiko hori aholkularitza-zerbitzuaren eta





etengabeko guardia-zerbitzu lokalizatuaren bitartez ematen da. Emakumeen kontrako indarkeriaren arloan prestakuntza duten abokatu-kopurua, elkargo bakoitzean, auzi-kopuruaren, lurralde-esparruaren eta egoera geografikoaren arabera zehazten da, besteak beste.

Aholkularitza-zerbitzuaren funtzioak:

- Beharrezko informazioa, aldez aurrekoa, salaketa jarri aurretik emakumeek dituzten eskubideen inguruan eta salaketa jartzeak dakartzan ondorioen inguruan.
- Informazioa arlo zibileko zein penaleko kautela-neurriak barne hartzen dituen babes-agindua eskatzeko aukeraren inguruan eta aginduaren irismen zein edukiaren inguruan. Era berean, informazioa emanen da ordenamendu juridikoak zehazten dituen gizarte-laguntza eta -babeserako neurrietara iristeko aukeraren inguruan.
- Emakumeak beste herrialde batetik datozenean, bizileku-baimena indarrean dagoen legediaren arabera lortzeko aukeraren berri emanen zaie.
- Emakumeen aholkularitza juridikoa ordezko aukeren berri emateko, norberaren, familiaren eta laneko egoera aintzat hartuz.
- Informazioa Familia Zuzenbidearen arloko prozesuekin lotutako kontuen inguruan.
- Orientazioa eta laguntza doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidearen aitortpena lortzeko. Aitortpen hori eskatzeko baldintza guztiak betez gero, zerbitzuko profesionalak laguntza emanen dio espedientearen eskaera eta izapidetzea egiteko.

Etengabeko guardia-zerbitzu lokalizatuaren funtzioak:

- 14/2015 Foru Legeak emakumeen kontrako indarkeriaren baitan aurreikusten dituen jarduketan biktima izan direla adierazten duten edo biktima izateko arrisku sendoa eta berehalakoa bizi duten emakumeentzako berehalako laguntza, edozein jatorrikoak izanik eta lurralde espainiarrean edozein legezko egoera izanik. Zerbitzu hau Nafarroako Foru Komunitate osoan emanen da, eguneko 24 orduetan, Nafarroako Larrialdietako Agentziarekin adostutako lankidetzaren eta koordinazio-protokoloaren bidez, 112 telefonoaren bidez, segurtasun-indar eta -kidegoekin eta Emakumearen kontrako Indarkeriaren eta Guardiako Epaitegiarekin, besteak beste.
- Laguntza eta asistentzia salaketa jartzen denetik egiten diren izapidetze guztietan. Salaketa polizia-zentroan, Emakumearen kontrako Indarkeriaren Epaitegian edo Guardiako Epaitegian jarriz gero, beharrezko neurriak hartuko dira frogak lortzeko, horiek edonolakoak izanik ere (osasunekoak, polizia, perituen edo lekuko bidezkoak, edo zuzenbidean onartu-





tako beste edonolakoak). Beharrezko bada, legeak biktimak babesteko ezartzen dituen neurriak eskatuko dira. Emakumeek hala eskatzen dutenean, Nafarroako Gobernuaren Larrialdi Zentrorako sarbidea emanen zaio.

- Asistentzia-txosten bat eginen da larrialdietako jarduketa bakoitzeko.

Emakumeei Laguntza Juridikoa Emateko Zerbitzuan (ELZ) parte hartzeko, ezinbestekoa da Ofiziozko Txanden eta Laguntza Zerbitzuen Antolakuntzaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduan eskatzen diren baldintzak betetzea, emakumeen kontrako indarkeriaren arloan prestakuntza espezifikoia izatea eta arlo penaleko eta familia-arloko Ofiziozko Txandetan izena ematea.

D) GIZARTE EREMUA

Jada aipatu denez, Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, 19. artikuluan, emakume biktimen gizarte-laguntza osorako eskubidea bermatzen du –emakumeen jatorria eta baldintza edo inguruabar pertsonal eta sozialak edozein direla ere–, batez ere, arretarako gizarte-zerbitzuei, larrialdi-zerbitzuei, babes- eta harrera-zerbitzuei eta errekupeazio osorako zerbitzuei dagokienez. Zentzu horretan, instituzioen arteko lankidetzeta eta koordinazioa ezinbestekoak dira tokiko erakundeekin, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen lan garrantzitsua aprobetxatzeko, Gizarte Zerbitzuen sistemarako sarbide gisa, eta, beraz, prozesuko alderdi parte hartzaile gisa eta indarkeria goiz detektatzeko baliabide garrantzitsuenetariko baten gisa.

Apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitekoak, II. Kapituluari, Arretarako eta Oneratzeko Sareko baliabideen eta zerbitzuen katalogoa izenekoan, gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren bitartez bermatzen du emakumeen arreta osorako eskubidea, guztiz errekupeatu arte. Horretarako, bizi-raun duten biktimen eskura jarri behar diren baliabideak eta zerbitzuak definitzen ditu, Nafarroako Foru Komunitatekoak. Baliabideak, eskuragarritasun-, irismen- eta kalitate-irizpideen arabera kudeatu beharrekoak, hauek dira:

- a) Informazioa eta arreta emateko baliabide orokorrak:
 - Informaziorako eta larrialdietarako telefonoa.
 - Informaziorako eta lehen arreta emateko zerbitzuak.
- b) Oneratzeko eta arreta espezializatua emateko zerbitzuak:
 - Arreta eta errekupeatze psikosozial integrala.
 - Haurtzako arreta psikologikoa.
 - Sexu-indarkeriaren biktimentzako errekupeatzea.
 - Giza-salerosketaren biktimentzako arreta osoa.
- c) Harrerarako eta aldi baterako ostatu segurua emateko sarea:





- Larrialdietako zentroa.
- Harrerara-baliabideak.
- Egoitza etxebizitzak.

Bere aldetik, ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuak, gizarte zerbitzu orokorren zorroa onesten duenak, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen babesean, sei zerbitzu, baliabide eta prestazio zehaztu zituen emakumeen kontrako indarkeriaren biktimeztako; horien artean nabarmentzen dira genero indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko taldeak (BAIT). Taldeon ezarpena 2010ean hasi zen, eta 2016an amaitu; hala, Nafarroako Foru Komunitate osoan zehar ezarri ziren (Tutera, Lizarra, Tafalla eta Iruñerriko ipar-mendebaldea eta ipar-ekialdea).

NORK ESKU HARTZEN DU

■ LEHEN MAILAKO ARRETAKO GIZARTE ZERBITZUAK

■ EMAKUMEEI ARRETA INTEGRALA EMATEKO ZENTROAK

■ GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA INTEGRALA EMATEKO TALDEAK (BAIT)

JARDUTEKO PROZEDURA

Koordinazioaren betebeharrari jarraituz, eta emakumeren bat indarkeria-egoeran badago edo halakorik susmatuz gero, gizarte-zerbitzuetako langileek edo egoera horretan dauden emakumeentzako baliabide espezifikoetako langileek, jarduteko prozedura honi jarraitu beharko diote, Nafarroako Foru Komunitateko edozein zentrotan. Prozedura honek baliabideen eta zerbitzuen arteko elkarlana eskatzen du, eta zera bermatuko da: birbiktimizazioa saihesten dela, biziraun duten biktimen eta haien seme-alaben lehentasunezko beharrei erantzuten zaiela eta emakumeen ahalduntzeari esku-hartzetik bertatik laguntzeko neurriak hartzen direla.

- Emakumeek, maiz, ez dute espresuki adierazten indarkeria-egoeran daudenik, ez dakite egoera horretan daudenik edo ez dute beren burua biktimatzat hartzen.
- Emakumeek zailtasunak erakuts ditzakete beren egoeraren aurrean erreakzionatzeko eta horri aurre egiteko; izan ere, babesgabatasuna barneratuta dute, eta, beste faktore batzuen artean, erruduntasuna, beldurra eta dependentsia sentitzen dute. Garrantzitsua da itxaropenak eta babesak lantzea eta emakumeen artean nork bere burua babesteko gaitasuna sortzea, arriskuan jar ez daitezen.
- Indarkeria-egoerarekin batera gertatzen diren beste bereizkeria batzuen ondorioz (prestakuntza-maila, desgaitasunak, egoera ekonomikoa, hizkuntza





ez jakitea, legezko egoera, familia- eta gizarte-babeserako sareak, etab.), emakumeak ahultasun-egoera larriago batean egon daitezke, eta arreta modu espezifikoan eman beharko zaie.

- Esku-hartzen denean, indarkeriatik ateratzeko prozesuen konplexutasuna ulertu behar da. Horretarako, emakumeak lagundu behar dira, beren erabakiei balioa eman behar zaie eta estereotipoak zein aurreiritziak saihestu behar dira.
- Emakumeek osasun-arreta behar duten lesioak baldin badituzte, zerbitzu egokiak dituen osasun-zentrorra lagunduko zaie (larrialdiak, ginekologia, etab.), premiazko arreta jaso dezaten. Protokolo honetan osasun-arloari eskaintzen zaion atalean xedatutakoaren arabera jardunen du osasun-zentroak. Osasun-arretarik behar ez badute, arreta egokia eta lehentasunezkoa emanen zaie, beren egoera emozional berezia kontuan hartuz.
- Beren segurtasuna arriskuan egotekotan, poliziaren presentzia eskatuko da, Segurtasun-indarrek eta -kidegoek jarduteko Protokoloaren arabera.
- Salaketa jartzea derrigorrezkoa ez dela jakinaraztea komeni da, baita hori egiteak zer suposatzen duen ere. Era berean, babes-agindua eskatzeko eskubidearen berri eman beharko litzateke, uztailaren 31ko 27/2003 Legearen arabera (Prozedura Kriminalaren Legearen 544. artikulua). Babes-aginduaren eskabidea Lehen Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuen edozein zentrotan aurkez daitekeen arren, polizia-etxe gertukoenean eskatzea komeni da, edo epaitegian bertan; izan ere modu horretan, poliziaren ates-tatua azkarrago beteko da, eta babes-neurriak azkarrago hartuko dira. Babes-agindua Lehen Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuen Zentro batean eskatzen bada, fax bidez igorriko da dagokion epaitegira, berehala. Horrekin batera, eskaeraren kopia bat igorriko zaie eskumena duten segurtasun-indarrei eta -kidegoei, lurraldearen arabera (Foruzaingoa, Guardia Zibila, Polizia Nazionalea edo Udaltzaingoa).

Lehen Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuek, Emakumei Arreta Integrala Emateko Zentroek eta Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala Emateko Taldeek, horietako bakoitzaren espezializazioaren arabera, informazio hau emanen diete emakumei:

- a) Emakumei Estatuko zein erkidegoko legediek ematen dizkieten eskubideen berri emanen zaie. Era berean, eskubide horietako batzuk izateko eta babeserako sistema abian jartzeko, emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei direla egiaztatu behar dutela jakinaraziko zaie, babes-aginduaren bitartez edo, salbuespen gisa, Fiskaltzaren txostenaren edo beste txosten batzuen bitartez. Hala ere, ez dute halakorik egiaztatu behar harrerarako baliabideak eskuratze-ko, horiek ere babeserako sistemaren barnean sartzen diren arren.
- b) Beren egoera justiziarik jakinarazteko duten eskubidearen berri emanen zaie emakumei, horretarako behar duen denbora emanda eta erabakiak hartze-





- ko autonomia erraztuta. Horrez gain, zerbitzu jakinei egoeraren berri ematea komeni dela iradokiko zaie emakumeei, beharrezko laguntza juridikoa jaso dezaten (Emakumeentzako Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala Emateko Taldeak, etab.).
- c) Emakumeekin adingabeak bizi badira, hau da, indarkeriaren zuzeneko biktimak, indarkeriak horien bizitzan dituen eraginaren inguruko eta administrazio publikoek horien babeserako dituzten betebeharren inguruko informazioa emanen zaie emakumeei.
- d) Emakumeen egoeraren arabera, Nafarroako Gobernuak eta beste administrazio batzuek haien esku jartzen dituzten baliabideen berri emanen zaie. Besteak beste:
- Errenta Bermatua (baliabideen atala ikusi).
 - Baliabide ekonomikorik eza eta enplegua lortzeko zailtasun bereziak egiaztatzen dituzten genero-indarkeriaren biktimentzako laguntzak (baliabideen atala ikusi).
 - Genero-indarkeriaren biktimentzako premiazko gizarte-laguntzak (baliabideen atala ikusi).
 - Babes ofizialeko etxebizitzaren erreserba, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat.
 - Etxebizitza-harrerarako baliabideak (larrialdietako zentroak, harrera-etxeak eta tutoretzapeko etxebizitzak) (baliabideen atala ikusi).
 - Teleasistentzia-zerbitzuak eta babeserako beste tresna batzuk.
 - Arreta psikologiko eta juridikorako zerbitzua, organo judizialen kolaborazioaren eta Delituaren Biktimen Arretarako Bulegoaren (DBAB) bidez.
 - Emakumeei Laguntza Juridikoa Emateko Zerbitzua, ELZ.
 - Gizarteratzeko Errenta Aktiboa, GEA (baliabideen atala ikusi).
 - Familia Elkarguneak (FE).
 - Bestelakoak.

E) HEZKUNTZA EREMUA

Apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak, emakumeen kontrako indarkeriari Nafarroan aurre egitekoak, hezkuntza-eremutik prebentzio-neurriak hartzearen garrantzia nabarmentzen du, kultur jokabideetan aldaketak sustatzeko, eta, hartara, emakumeen gutxiagotasunaren ideian oinarritzen diren aurreiritziak, ohiturak, tradizioak eta bestelako praktikak deuseztatzeko. Gainera, hezkuntza ezartzen du emakumeen





eta neskatoen ahalduzko-prozesuak babesteko ezinbesteko bide gisa, edukazio formalaren zein ez-formalaren bitartez.

Foru Lege horrek hainbat prebentzio-neurri jasotzen du, besteak beste, protokoloak egitea, neskatoek, nerabeek eta emakume gazteek jasaten duten emakumeen kontrako indarkeria identifikatzeko eta horri erantzuna emateko. Esparru horretan, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamenduak, hezkuntza-eremutik emakumeen kontrako indarkeria-kasuen detekzioa eta arreta egokia errazteko helburuarekin, Nafarroako eskoletako bizikidetzari buruzko araudiaren bidez erregulatzen du, eta indarkeria-kasuen aurrean modu egokian jarduteko gida hedatzen du. Emakumeen aurkako indarkeria-kasuen aurrean hezkuntza-eremutik egiten den esku-hartze oro printzipio hauek zuzendu behar dute: babes, esku-hartze eraginkorra, azkarra, premiazkoa eta ez-presazkoa, diskrezioa eta konfidentzialtasuna.

Gainera, Hezkuntza Departamenduak urtero eskaintzen ditu irakasleentzako preskakuntza-jarduerak, emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioaren arloan, irakasleen sentsibilizazioan eta trebakuntzan eragiteko, baita ikasleen prebentzio-hezkuntzan ere, indarkeria-mota honen aurrean.

NORK ESKU HARTZEN DU ETA JARDUTEKO PROZEDURA

- 1) Jakiten bada edo oinarritutako susmoa bada ikasle neska batek Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe bateko ikasle mutil batengandik emakumeen eta neskatoen kontrako-indarkeria pairatu duela –fisikoa, psikikoa edo sexuala –, ikastetxeko zuzendaritza jarduketa-prozesuaren arduraduna izanen da. Ikastetxe horretako irakasle batek har dezake bere gain koordinazio hori. Ikastetxeak zein inplikaturiko pertsonak Bizikidetzaren Aholkularitzaren eta/edo Hezkuntzako Ikuska-penaren aholkuak eta esku-hartzea izan ditzakete.
 - a) **Prozesuaren jatorria.** Hezkuntza komunitateko kide heldu batek baldin badaki norbait emakumeen eta neskatoen kontrako indarkeria jasaten ari dela –jazarpena eta larderia barne–, ikaslea babestuko du, eta egoera horren berri idatziz emanen dio ikastetxeko zuzendaritzari.
 - b) **Informazioa biltzea.** Ikastetxeko zuzendaritzak tratatu txarren gertaerak eta inguruabarrak argitzeko behar bezainbeste datu sistematikoki behatu eta bilduko ditu, baita tratatu txar horren larritasuna ere. Eskura dagoen informazioa osatu eta ahalik eta zuhurtasun eta eraginkortasun handienarekin erkatuko da.
 - c) **Informazioa aztertzea eta premiazko neurriak hartzea.** Zuzendaritzak orientatzailea eta kasu bakoitzean beharrezkoa den esku-hartzea aztertu eta baloratzeko ikastetxeko pertsona egoki eta eskudunak deituko ditu (oro har, bizikidetzaren batzordea) eta egokitzat jotako neurriak hartuko dituzte, hots, erasoak jasan duen emakumearen edo neskatoaren segurtasuna berehalak bermatuko dutenak (baita erasotzailearen jokabidea zuzentzeko neurriak ere). Neurri horiek, hala behar denean, balizko polizia-jarduerekin bateragarriak izanen dira.





- d) **Elkarrizketak.** Banakako elkarrizketak prestatu eta hitzartuko dira alde inplikatuekin eta haien familiekin, gertaeren gaineko informazioa ezagutu eta biltzeko, gertaera horiek familiek ezagutzen dituzten edo ez zehazteko, horri dagokionez zer neurri hartu den ezagutzeko eta ikastetxeak egindako jardueren berri gertaera horiek ukitzen dituztenei emateko (adingabeak direnean, zitazioetan ikaslea eta bere familia elkar daitezke, kalterik ekarriko ez duela uste bada bederen). Era berean, izan ditzaketen iritziak eta egin ditzaketen ekarpenak bilduko dira eta adieraziko zaie gertaerak delitu izan daitezkeen edo ez eta, ondorioz, salatu daitezkeen edo ez.
- e) **Esku-hartze plana.** Informazio guztia bildu eta aztertu ondoren, erabakiko da emakumeen eta neskatoen kontrako indarkeria-kasu bat den edo ez baieztatzen den, eta esku-hartze plana idatziko da. Planean neurri hauek bilduko dira: ikastetxeak inplikaturiko ikasleekin hartu beharreko neurriak, kaltetutako familiei eman beharreko informazioa, gainerako ikasleekin eta irakasle taldearekin egin beharrekoa jarduera eta, hala behar denean, bestelako instantziei egin beharreko jakinarazpenak.
- f) **Txostena.** Kasuaren koordinatzaileak ikastetxeko zuzendaritzara bidaliko du ikerketaren txosten idatzia, eta hartan iradokiko du zein diren proposatutako neurri zuzentzaileak. Zuzendaritzak hezkuntza arloko neurriak hartuko ditu, eta horren berri emanen dio ikuskaritzari.
- g) **Inplikaturiko familiei eman beharreko informazioa.** Esku-hartze plana idatzi ondoren, inplikaturiko familiei aditzera emanen zaie beren semea-ekin edo alabarekin banakako zer neurri hartu den eta, horrekin batera, senideei eragin diezaieketen gainerako neurrien berri emanen zaie, anto-laketa eta prebentzio arloetakoak.
- h) **Jarraipena eta ebaluazioa.** Ikastetxeko zuzendaritzaren arduraren esku-hartze planean aurreikusitako neurriak gauzatzea. Aldian-aldean behar den ikuskatzaileari aditzera emanen dio neurri horiek zenbateraino bete diren eta zein den inplikaturiko ikasleen egoera sozioedukatihoa.
- 2) Jakiten bada edo oinarritutako susmoa bada neska ikasle batek Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe bateko langile batengandik emakumeen eta neskatoen kontrako-indarkeria pairatu duela –fisikoa, psikikoa edo sexuala –, horren berri emanen zaie ikastetxeko zuzendaritzakoei eta azken honek berehala esanen die Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzukoiei. Hori guztia, diziplina neurriak eta agintari judizial eskudunari nahitaez komunikatzeko beharra eragotzi gabe.
- 3) Hezkuntza-komunitateko kideren batek baldin badaki edo oinarritutako susmoa badu neska ikasle batek senide batengandik edo Foru Komunitateko ikastetxe bateko langilea ez den pertsona batengandik emakumeen eta neskatoen kontrako-indarkeria pairatu duela –fisikoa, psikikoa edo sexuala –, berehala emanen die horren berri ikastetxeko zuzendaritzakoei eta azken horiek, egoera aztertu ondoren, Gizarte Zerbitzuei, Fiskaltzari eta Hezkuntza Ikuskapenekoei jakinaraziko diote.





4) Hezkuntza elkarteko kideren batek baldin badaki edo oinarritutako susmoa baldin badu emakumezko langile batek edo ikasleren baten amak emakumeen kontrako-indarkeria pairatu duela –fisikoa, psikikoa edo sexuala –, berehala emanen die horren berri ikastetxeko zuzendaritzakoei eta azken horiek, egoera aztertu ondoren, Gizarte Zerbitzuei, Fiskaltzari eta Hezkuntza Ikuskapenekoei jakinaraziko diote.

Lehenago aipatu ditugun 1), 2), 3) eta 4) ataletan ezarritakoaren arabera, premiak hala eskatzen badu, 112 larrialdi-telefonora deituko da. Era berean, kasu guztietan, emakumeei eta neskatoei laguntza eta informazioa emanen zaie edo, hala behar denean, haien senideei, eta hezkuntza-esparruan zer zerbitzu eta prestazio izateko eskubidea duten jakinaraziko zaie, edo informazio egokia emanen dien norbaitengana bideratuko dira.






Emakumeen kontrako indarkeria hezkuntza-eremuan: Jarduketarako algoritmoa

Egoera ezagutu

Ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazi

**112 zenbakira ditu,
egoera larria denean**



Iturria: Nafarroako Berdintasunerako Institutuak egina, Hezkuntza esparruan genero-indarkeriako kasu bat gertatzen denean jarduteko gidan oinarrituz. Hezkuntza Departamendua. Nafarroako Gobernuak.



F) ETXEBIZITZA EREMUA

Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak hamabosgarren xedapen gehigarrian zehazten du «*Administrazio eskudunekin egindako hitzarmenen bidez, Gobernuak genero-indarkeriaren biktimei babestutako etxebizitzak adjudikatzeko prozesu bereziak sustatu ahal izanen dituela*». Bere aldetik, apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitekoak, 56. artikuluan zehazten du Nafarroako Foru Administrazioak neurriak sustatu behar dituela emakumeen aurkako edozein indarkeria mota jasaten duten emakumeek etxebizitza bat eskura dezaten errazteko, prekarietate ekonomikoko egoeran badaude edo etxebizitza lortzea beharrezkoa deanean emakumearen erreparatze- eta erreparazio-prozesurako.

Testuinguru horretan, Nafarroako Foru Komunitatean, maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeak, Nafarroan Etxebizitza Izateko eskubideari buruzkoak, zeina abenduaren 21eko 22/2016 Foru Legeak, etxebizitzaren alorrean herritarrentzako laguntza-neurriak ezartzen dituenak, hainbat artikulutan aldatzen baitu, etxebizitza babestuak erreserbatzen dizkie indarkeria biziraun duten biktimei. Horrela, arau horrek saleroskete diren etxebizitza babestuen % 3 erreserbatzen dio indarkeria-egoeran daudela egiaztatzen duten emakumei, eta esleitu beharreko alokairuko etxebizitza babestuen % 6, salerosketarako aukerarik gabe.

22/2016 Foru Legeak egiten dituen hobekuntzek indarkeria-egoeran dauden emakumei mesede egiten diete; izan ere, eskuragarri dagoen etxebizitza-kopurua areagotzen dute, alokairu-sistema babestua hobetzen da eta biziraun duten biktimei etxebizitzak zaharberritzeko lanetarako ematen zaizkien diru-laguntzen ehunekoak % 3 izatetik % 5 izatera igaro da.

Azkenik, alokairuko etxebizitza babestu bat eskuratzen duten emakumeek eskubidea daukate lehen urtean zehar errentaren % 90 diruz laguntzeko, eta % 75, bigarren urtean, diru-sarrerak kontuan hartu gabe.

NORK ESKU HARTZEN DU ETA JARDUTEKO PROZEDURA

Emakumeen kontrako indarkeria-kasuetan, emakumeek Nafarroako Gobernuaren Etxebizitza Zerbitzua erabil dezakete, emakumek beraiek erabaki dutelako edo indarkeria-egoeran dauden emakumeen arretan eskumenak dituzten beste zerbitzu publiko batzuek hara bideratu dituztelako. Erreserbatutako etxebizitza babestuak eskuratzeko, bi modalitateetako edozeinetan, erosketarako edo alokairurako, emakumeak «genero-indarkeriaren biktimea» dela egiaztatu behar du. Egiaztapen hori Nafarroako Berdintasunerako Institutuak igortzen du.

Maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeak, Nafarroan Etxebizitza Izateko eskubideari buruzkoak, zera aurreikusten du:

- a) Beste etxebizitza baten edo haren zati alikuota baten jabariaren titularrak edo hura erabili eta gozatzeko eskubide errealarren titularrak ez izatea agintzen duen



betebeharra ez zaie eskatuko etxebizitza babestua alokairu araubidean lortzen duten emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei.

- b) Jabetza araubideko etxebizitza babestuak lortu ahal izateko, beharrezkoa izanen da edozein organo juridikzionalen epai irmoa izatea, pertsona hori genero-indarkeriaren biktima izan dela deklaritzen duena. Biziraun duen biktimari etxebizitza esleitzeko prozedura hasi zen eguna baino bost urte lehenago, gehienez, eman-dako epaia izan behar du.

G) ENPLEGU EREMUA

Enplegua ezinbesteko baliabidea da autonomia ekonomikorako eta indarkeriaren biktima diren emakumeen ahaldunderako. Zentzu horretan, Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, atariko tituluan, legearen printzipio artezkarien baitako 2 d) artikuluan, lan-esparruan eta funtzionarioen esparruan eskubideak bermatzen ditu, lan-harremanen eta enplegu publikoaren beharrianak uztartzen dituztenak emakumeen kontrako indarkeria jasaten duten emakume langileen edo funtzionarioen inguruabarrekin. Lege organiko horrek, artikulua berdineko e) paragrafoan, indarkeriaren biktima diren emakumeentzako eskubide ekonomikoak bermatzen ditu, emakume horien gizarte-ratzea errazteko helburuarekin. Lege Organikoak, bigarren tituluan eta Espainiako Erresumaren Enplegu Planaren esparruan, enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta dauden biktimentzako ekintza-programa espezifikoa jasotzen du. Hirugarren Kapituluaren 24. eta 26. artikuluetan, genero-indarkeriaren biktima diren emakumezko funtzionario publikoen eskubideak erregulatzen dira, eta Laugarren Kapituluaren 27. eta 28. artikuluetan, eskubide ekonomikoak erregulatzen dira.

Apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitekoak, biziraun duten emakumeen laneratzea eta autonomia ekonomikoa sustatzeko helburuarekin, hainbat neurri ezartzen ditu, enplegu-politika aktiboekin lotura dutenak, besteak beste, emakume horien lehenatasuna Nafarroako Enplegu Zerbitzuak sustatutako prestakuntza- eta enplegu-programetan parte hartzeko. Era berean, emakumeen kontrako indarkeriaren biktima diren langile publikoen eskubideak erregulatzen ditu.

NORK ESKU HARTZEN DU ETA JARDUTEKO PROZEDURA

Enplegua eskatu duten emakumeek Nafarroako Enplegu Zerbitzua erabil dezakete, emakumek beraiek erabaki dutelako edo indarkeria-egoeran dauden emakumeen arretan eskumenak dituzten beste zerbitzu publiko batzuek hara bideratu dituztelako.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bulego bakoitzean, bulegoko zuzendaritzak pertsona bat edo gehiago izendatuko ditu, arreta egokitua emateaz eta emakumeen





laneratze-ibilbidearen jarraipen osoa eta koordinazioa gauzatzeaz arduratuko direnak. Horrez gain, enplegua lortzeko aukera balioetsiko dute txosten baten bidez, emakumearen adina, prestakuntza-maila eta inguruabar pertsonal eta sozialak kontuan hartuz. Txostena egiteko, salbuespen-izaeraren, behin-behinekotasunaren eta borondatez egitearen printzipioak hartuko dira kontuan; izan ere, emakume horiei zuzendutako politikak lehentasuna eman behar diote laneratzearen helburuari, autonomiarako bide gisa.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak biziraun duten emakumeentzat hartzen dituen jarduketa-neurri espezifikoak dagokienez, gaur egun eskuragarri dauden prestazio ekonomikoak jasotzen dira jarraian:

- **Txostenak igortzea**, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek laguntzak eskura ditzaten, baldin eta baliabide ekonomikorik eza eta enplegua lortzeko zailtasun bereziak egiaztatzen badituzte eta gizarte zerbitzu orokorren zorroak biziraun duten biktimei bermatzen dizkien prestazioak jasotzen dituztela frogatzen badute.
- **Gizarteratzeko Errenta Aktiboa**, GEA, azaroaren 24ko 1369/2006 Errege Dekretuak erregulatua (2006/12/05eko BOE, 290 zk.). (Baliabideen atala ikusi).



3.

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO
EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN
ARRETARAKO BALIABIDEAK



A) INSTITUZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Nafarroako Berdintasunerako Institutua emakumeen kontrako indarkeriaren prebentziorako eta arretarako politika publikoak Nafarroako Foru Komunitatean koordinatzeaz, sustatzeaz eta ebaluatzeaz arduratzen den organismoa da.

INSTITUTO NAVARRO PARA LA IGUALDAD / NAFARROAKO BERTINTASUNERAKO INSTITUTUA

Alondegi Kalea, 1-2 Solairua 31002 Iruña

Telefonoa: 848421588

www.igualdaddegenero.navarra.es

B) EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU-ORDEZKARITZAREN KOORDINAZIO-UNITATEA

Organikoki, Gobernu Ordezkaritzaren menpe dago, eta funtzionalki, Osasun, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun Ministerioaren menpe. Hainbat eskumen ditu, besteak beste, instituzioen arteko elkarlana sustatzea eta laguntzea eta Genero Indarkeriaren Gobernu Ordezkaritzari lankidetzaren planen eta jarduteko protokoloen lanke-ta proposatzea, prebentziorako jarduketan eta prozeduren antolaketa, asistentzia eta genero-indarkeriaren jazarpena berma dezaten, genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoaren 32. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eskumen guztiak Nafarroako Autonomia Erkidegoarekin elkarlanean garatzen dira, zehaztutako koordinazio-protokoloen arabera.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKAKO UNITATEA

Merindadeen Plaza z/g 31071 Iruña

Telefonoa: 948 979 000 Faxa: 948 979 140





C) INFORMAZIO OROKORRA

INSTITUTO NAVARRO PARA LA IGUALDAD/ NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA

Protokolo honetan jasotzen diren prozedurei, baliabideei eta zerbitzuei buruzko informazio, orientazio eta aholkularitza guztia hemen errazten da:

Nafarroako Berdintasunerako Institutua

Alondegi Kalea, 1-2 Solairua 31002 Iruña

Telefonoa: 848421588

www.igualdaddegenero.navarra.es

016 TELEFONOA

016 telefonoa emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan informazio eta aholkularitza juridikoa emateko zerbitzua da, eta Osasun, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun Ministerioaren menpe dago. Guztiz doakoa da, eta deia ez da fakturan azaltzen.

Informazioa eta aholkularitza emateko telefono-zerbitzua da, biziraun duten biktimen egoera pertsonalari egokitua, lurralde osoan eta bizilekua edozein izanik.

Larrialdi-kasuetan, Nafarroako Foru Komunitateko 112 zenbakira bidera daitezke deiak.

Informazio-eskaerei eguneko 24 orduetan erantzuten zaie, urteko 365 egunetan zehar, **52 hizkuntzatan**: gaztelania, euskara, katalana, galiziera, ingelesa, frantsesa, alemana, portugesa, mandarin txinera, errusiera, arabiera, errumaniera, bulgariera, tamazight eta bestelako 38 hizkuntza, interpretazio-zerbitzu baten bidez.

- **Adin txikikoek** egindako deiak haurrei eta nerabeei laguntzako ANAR telefonora bideratuko dira: 900202010
- **Sexu-esplotazioa helburutzat duen emakume- eta neskato-salerosketarekin** lotura duten deiak Barne Ministerioaren telefonora bideratuko dira: 900105090
- **Entzuteko eta/edo hitz egiteko desgaitasuna** duten pertsonak 016 telefonoarenik komunika daitezke bitarteko hauen bidez:





Testu-telefonoa (DTS), 900 116 016 zenbakiaren bidez

Telesor zerbitzua, Telesor-en web orriaren bidez. Kasu horretan, Internet eduki behar da. <https://www.telesor.es>

Telefono mugikorra edo PDA. Bi kasuetan, doako aplikazio bat instalatu behar da, Telesor-en web orrian azaltzen diren urratsei jarraituz. <https://www.telesor.es>

Ikusizko bideointerpretazio-zerbitzua, web orri honen bitartez: <http://www.svisual.org>

012-INFOLOCAL TELEFONOA

Hiritarrentzako arreta-zerbitzuak erkidegoko baliabide eta prestazioei buruzko informazioa ematen du.

D) LARRIALDI ZERBITZUAK

112 SOS NAFARROA LARRIALDI TELEFONOA

Segurtasun-indarren eta -kidegoen arreta koordinatzen du, baita ospitale-zentroena, larrialdietako zentroena, premiazko asistentzia psikologiko eta juridikoarena, organo jurisdikzionalena eta muturreko larritasuna edo berehalako arriskua duten egoera guztietan esku hartzen duten instantziena ere. Deiak doakoak dira, eta astelehene-tik igandera 24 orduz dei daiteke. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuaren zerbitzu bat da.

SOS Nafarroa larrialdi-deien harrera zentrotako telefonoak konfigurazio berezia du. Horren bidez, ohiko moduan komunikatu ezin diren pertsonak (gorrak eta mutuak) deiak egin ditzakete (SMS formatuan) 112 zentrotara, pertsonak bizi izan duen gertakari baten berri emateko, edo une horretan bertan gertatzen ari den gertakari baten berri emateko. Telefono zenbakia: **650 738 005**.

LARRIALDI-ZENTROA

Harrerarako baliabide honek premiazko ostatua eta babesa ematen die emakumei, haien seme-alaba adingabeei eta emakumearen tutoretzaren, kuradoretzaren, zaintzaren edo harreraren menpeko pertsonari, hilabeteko epean gehienez ere. 112 SOS Nafarroa telefonoaren bidez eskuratzen da.





LAGUNTZA JURIDIKO IRAUNKORRERAKO ZERBITZUA

Doako laguntza juridikoa ematen die larrialdi-egoeran dauden emakume guztiei, Nafarroa osoan, urteko egun guztietan eta egun osoa zehar. Aholkularitza ematen du, eta salaketa jartzen laguntzen die hala egitea erabakitzen duten emakumeei. Zerbitzu hau Emakumeei Laguntza Juridikoa Emateko Zerbitzuaren bidez (ELZ) ematen da.

112 SOS Nafarroa zenbakiaren bidez eskura daiteke zerbitzu hau, edo Jarduketa bateraturako protokoloan parte hartzen duten instantziek hala eskatuta.

PREMIAZKO LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

Laguntza eta babes psikologikorako premiazko esku-hartzeak eskaintzen dizkie, dohainik, emakumeei eta haien seme-alabei, egunean 24 orduz. Zerbitzu hau Justizia Zerbitzu Sozialaren menpe dago, eta 112 SOS Nafarroa telefonoaren bidez eskura daiteke, edo larrialdi-egoera hauetan esku hartzen duten profesionalak hala eskatuta (polizia, osasun-arloko langileak, epaileak...).

E) BALIABIDE JURIDIKO ETA JUDIZIALAK

EPAITEGIAK

Emakumearen kontrako Indarkeriaren Epaitegi bakarra dago, Iruñeko Emakumeen kontrako Indarkeriaren 1 Epaitegia, baina epaitegiek dituzte emakumeen kontrako indarkeriaren arloko eskumenak, Nafarroako barruti judizial guztietan.

IRUÑEKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN 1 ZK.KO EPAITEGIA

San Roke kalea, 4 – 2. solairua • 31011 IRUÑA

Telefonoa: 848 424 380

TUTERAKO LEHEN AUZIALDIKO ETA INSTRUKZIOKO 2 ZK.KO EPAITEGIA

Pablo Sarasate kalea, 4 - 2. solairua • 31500 Tuterua

Telefonoa: 948 413 066

TAFALLAKO LEHEN AUZIALDIKO ETA INSTRUKZIOKO 1 ZK.KO EPAITEGIA

Severino Fernández etorbidea, 52-1 • 31300 Tafalla

Telefonoa: 948 700 095





LIZARRAKO LEHEN AUZIALDIKO ETA INSTRUKZIOKO 1 ZK.KO EPAITEGIA

San Martín Plaza, 4 - 2. solairua • 31200 Lizarra

Telefonoa: 948 550 193

AOIZKO LEHEN AUZIALDIKO ETA INSTRUKZIOKO 2 ZK.KO EPAITEGIA

Kale berria, 13 - 2. solairua • 31430 Aoiz

Telefonoa: 948 336 630

IRUÑEKO ZIGOR-ARLOKO 5 ZK.KO EPAITEGIA

San Roke kalea, 4 – 1. solairua • 31011 Iruña

Telefonoa: 848 424 565

NAFARROAKO AUZITEGIKO MEDIKUNTZAREN INSTITUTUA

Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutua (NAMI) Foru Komunitateko organo judizialen zerbitzu osagarria da. Funtzio hauek betetzen ditu: txosten eta irizpen mediko-legalak igortzea, epaitegiek hala eskatzen dutenean, eta jarduketa prozesalen objektu diren pertsona lesionatuak kontrolatzea eta horien gorputz-kalteak baliostea. Emakumeen kontrako indarkeriari dagokionez, Osoko Balorazio Forentseko Unitatea daukate.

NAFARROAKO AUZITEGIKO MEDIKUNTZAREN INSTITUTUA

San Roke kalea, 4 31011 Iruña

Telefonoa: 848 424 032 / 848 424 030

EMAKUMEEI LAGUNTZA JURIDIKOA EMATEKO ZERBITZUA (ELZ)

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak, Nafarroako Abokatutza Elkargoekin batera, aholkularitza juridikorako zerbitzu orokor eta doakoa sustatzen eta finantzatzen du. Zerbitzuak, aldez aurretik, beharrezko informazio, orientazio eta aholkularitza eskaintzen du, emakumeen kontrako indarkeriaren arloan. Laguntza juridiko iraunkorrerako zerbitzua barne hartzen du. Orokorrean, ELZk Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala Emateko Taldeen bidez ematen du laguntza juridikoa. ELZ esku-ratzeko, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala Emateko Taldeekin jarri behar da harremanetan (telefonoa baliabidearen deskribapenean kontsultatu). Iruñeko Abokatutza Elkargoak, gainera, bere egoitzan aholkularitza-zerbitzua ematen du astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan, 16:30etatik 17:00etara, uztaillean eta abuztuan salbu, 10:00etatik 12:00etara ematen baitu.





JUSTIZIA ZERBITZU SOZIALA

Zerbitzu honek, premiazko arreta psikologikoaz gain, hainbat funtzio ditu, besteak beste, emakumeei laguntza juridiko, psikologiko iraunkor eta asistentziala ematea eta babes-aginduen Nafarroako koordinazio-puntua izatea.

DELITUAREN BIKTIMEN ARRETARAKO BULEGOA (DBAB) ETA ORGANO JUDIZIALEN KOLABORAZIOA

San Roke kalea 4, beheko solairua Justizia-jauregia 31011 Iruña.

Telefonoak: 848 423 376 / 848 427 671 / 848 421 387

F) POLIZIA BALIABIDEAK

Segurtasun-indar eta -kidegoek hainbat jarduketa gauzatzen dituzte emakumeak babesteko. Premiazko esku-hartzeaz gain, babes-aginduak jarraitzeaz arduratzen dira, baliabide pertsonal eta elektronikoen bidez. Era berean, emakumeentzako zaintza-eta kontrol-sistemak dituzte, polizia-egindako arrisku-balorazioaren arabera.

Larrialdi-egoeretan, 112 SOS NAFARROA telefonoaren bidez jar daiteke harremanetan polizia-kidego guztiekin.

Larrialdi-egoera baten aurrean polizia mugitzen ez bada, emakumeak komisaria edo polizia-etxe gertukoenera joan daitezke eta/edo bertan zein eraso gertatu den lekuan salaketa jar dezakete.

NAFARROAKO FORUZAINGOA

Foruzaingoaren baitan, Laguntzako Brigadak ikertzen ditu emakumeen kontrako indarkeriarekin lotura duten delituak. Edozein polizia-etxeko uniformedun patruilak has dezake jarduera, baina beti bideratuko da brigadaren baitako langile espezializatuetera, Tuterako polizia-etxearen lurralde-eremuko kasuetan salbu; izan ere, Ikerkuntza Kriminaleko Arloan atxikita dauden langileak –lanpostua polizia-etxe horretan dutenak– zuzenean arduratzen dira horiez.

FORUZAINGOAREN POLIZIA ETXE NAGUSIA

Fuente de la Teja kalea s/n 31006 Iruña

Unitate espezializatuaren posta elektronikoa: pfasistencial@navarra.es

Laguntzako Brigadaren telefonoa: 848 426 403





ALTSASUKO POLIZIA ETXEA

Iruñeko etorbidea, 16 31800 Altsasu
Posta elektronikoa: pfalsasua@navarra.es
Telefonoa: 948 564 614

ELIZONDOKO POLIZIA ETXEA

Menditurri kalea s/n 31700 Elizondo
Posta elektronikoa: pfelizondo@navarra.es
Telefonoa: 948 581 864

LIZARRAKO POLIZIA ETXEA

Gallarda kalea, 2 31200 Lizarra
Posta elektronikoa: pfestella@navarra.es
Telefono: 948 555 576

IRUÑAKO POLIZIA ETXEA

Gaztelu plaza, 2 31002 Iruña
Posta elektronikoa: pfpamplona@navarra.es
Telefonoa: 848 426 853

ZANGOZAKO POLIZIA ETXEA

Aita Raimundo Lumbier etorbidea, 15 31400 Zangoza
Posta elektronikoa: pfsanguesa@navarra.es
Telefonoa: 948 871 614

TAFALLAKO POLIZIA ETXEA

Sansomain etorbidea, 2 31300 Tafalla
Posta elektronikoa: pftafalla@navarra.es
Telefonoa: 94W8 704 265

TUTERAKO POLIZIA ETXEA

Tarazonako errepidea, 3. km-a 31500 Tutera
Posta elektronikoa: pftudela@navarra.es
Telefonoa: 848 434 500





IRUÑEKO UDALTZAINGOA

Polizia Judizialaren Brigadaren menpeko Herritarren Arretarako Bulegoak jasotzen du salaketa, eta bertan, emakumeen kontrako indarkeriaren arloan espezializatu-tako langileek egiten dute atestatua.

Gizarte Babes eta Arretako Brigadak, langile espezializatuekin, biktima laguntzeaz eta kasuaren araberako babesa emateaz arduratzen da, beste zerbitzu batzuekin batera modu koordinatuan lan eginez.

IRUÑEKO UDALTZAINGOA

Iratxeko monasterioaren kalea 2 31011, Iruña

Larrialdietarako telefonoaren zerbitzua, 24 orduz: 092

Herritarren Arretarako Bulegoaren telefonoaren zerbitzua, 24 orduz:

948 420 630 / 948 420 629 / 948 420 631

Gizarte Babes eta Arretako Brigadaren zerbitzua, 06:30etatik 22:30eta-
ra: 948 420 632

POLIZIA NAZIONALAREN KIDEGOA

Modu espezifikokoan jarduten du genero-indarkeriaren biktima diren emakumeekin, Polizia Judizialaren Brigada Probintzialaren bidez. 091 eta 112 SOS Nafarroa telefonoen bidez jar daiteke harremanetan.

POLIZIA NAZIONALAREN BURUTZA NAGUSIA. FAMILIA ETA EMAKUMEEN UNITATEA

Chinchilla jeneralaren kalea 3 31002 Iruña

Telefonoa: 948 299 779 eta 091 (24 ordu)

POLIZIA NAZIONALAREN TUTERAKO POLIZIA-ETXEA

Polizia Judizialaren Tokiko Brigada

Aita Lasa kalea 7 31500 Tutera

Telefonoa: 948 402 500

GUARDIA ZIBILA

Nafarroako Guardia Zibilak postuak (polizia-etxeak) ditu herri hauetan: Altsasu,





Andosilla, Aoiz, Artaxoa, Azagra, Beriain, Buñuel, Auritz, Caparrosa, Zarrakaztelu, Cascante, Kaseda, Castejon, Cintruenigo, Corella, Cortes, Etxalar, Elizondo, Lizarra, Eulate, Fitero, Fustiñana, Irurtzun, Izaba, Lekunberri, Leitza, Lerin, Lodosa, Los Arcos, Irunberri, Martzilla, Mendabia, Milagro, Miranda Arga, Mugairi, Otsagabia, Olague, Olite, Iruña, Azkoien, Gares, Erronkari, San Adrian, Zangoza, Tafalla, Tuteru, Urdazubi, Valtierra, Bera Bidasoa, Viana, Alesbes, Esa eta Zubiri.

Postu guztiak ez dira etenik gabe, egunean 24 orduz, urteko 365 egunetan irekita egoten, baina eguneko tarteren batean itxita egoten diren horien kasuan, zerbitzueren bat behar izatekotan, Zerbitzuen Zentro Operatiboko salaren bidez (062), partuila bat bidaliko da eskaerari erantzuna emateko. Kasua larriagoa denean, Arreta Espezializatuko Puntuetara bideratuko da, Lizarrara, Iruñera, Tafallara eta Tuterara; muturreko kasuetan, EMUMEk (emakumeen eta adingabeen taldea) jardunen du, Iruñean. Larrialdi-kasuetan edo edozein beharren aurrean, 062 telefonoa erabiltzea gomendatzen da (Guardia Zibilaren larrialdiak).

GUARDIA ZIBILA.- EMUME (Polizia Judizialaren Unitate Organikoa- Pertsonen kontrako delituen eremua)

Galizia etorbidea, 2 • 31003 Iruña

Telefonoa: 948 296 850, 5260 luzapenarekin, eta 062 (24 ordu)

GUARDIA ZIBILA.- Arreta Espezializatuko Gunea (Polizia Judizialaren Unitate Organikoa-Polizia Judizialaren Lurralde Taldea Iruña)

Galizia etorbidea, 2 • 31003 Iruña

Telefonoa: 948 296 850, 5205 luzapenarekin, eta 062 (24 ordu)

GUARDIA ZIBILA.- PAE (Polizia Judizialaren Unitate Organikoa-Polizia Judizialaren Lurralde Taldea Lizarra)

Merkatu Zaharra Plaza 21 • 31200 Lizarra

Telefonoa: 948 554 454 eta 062 (24 ordu)

GUARDIA ZIBILA.- PAE (Polizia Judizialaren Unitate Organikoa-Polizia Judizialaren Lurralde Taldea Tafalla)

Tutera etorbidea, 52 • 31300 Tafalla

Telefonoa: 948 700 089 eta 062 (24 ordu)

GUARDIA ZIBILA.- PAE (Polizia Judizialaren Unitate Organikoa-Polizia Judizialaren Lurralde Taldea Tuteru)

Aranaz eta Vides kalea, 8 • 31500 Tuteru

Telefonoa: 948 820 073 eta 062 (24 ordu)





UDALTZAINGOAK ETA TOKIKO POLIZIAK

Biztanle gehien dituzten Nafarroako udalerriek udaltzaingoa dute. Larrialdi-egoeretan horren zerbitzuak eskatu daitezke, 092 eta 112 SOS NAFARROA telefonoen bitartez, eta beharrezkoa bada, udaletxeetan informazioa eskatuz.

G) GIZARTE-ARRETARAKO BALIABIDEAK

EMAKUMEEI LAGUNTZEKO UDAL ZERBITZUAK

Biztanle gehien dituzten Nafarroako zenbait herrik aholkularitza espezializatua eskaintzen diete biziraun duten emakumeei. Iruñeko Udalak zerbitzurik osoena eskaintzen du Emakumeari Laguntzeko Udal Zerbitzuaren (ELUZ) bidez. ELUZek, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala Emateko Taldeek ez bezala, ez die arretarik ematen indarkeriaren biktima diren neska adingabeei.

ARRETA PSIKOLOGIKO ETA/EDO JURIDIKO ESPEZIALIZATUA ESKANTZEN DUTE:

ALTSASUKO UDALA, telefonoa: 948 564 823

BARAÑAINGO UDALA, telefonoa: 948 199 870

BERRIOZARKO UDALA, telefonoa: 948 301 631

LIZARRAKO UDALA, telefonoa: 948 548 237

ATARRABIAKO UDALA, telefonoa: 948 130 734

NOAINGO ZONAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN

MANKOMUNITATEA, telefonoa: 948 318 287

ARRETA ESPEZIALIZATU OSOA ESKANTZEN DU:

**IRUÑEKO UDALAREN EMAKUMEARI LAGUNTZEKO UDAL
ZERBITZUA (ELUZ)**

Marcelo Celayeta etorbidea, 51, etxabea. (La Carbonilla eraikina)
31014 Iruña Telefonoa: 948 420 940

Arretarako ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:30etara.





OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK

Nafarroako Foru Komunitate osoan ezarri diren 45 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (OGZ), tokiko entitateen menpe daudenak, gizarte-zerbitzuetarako sarbidea dira. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik, indarkeria-egoeran bizi diren emakumeei arreta osoa eskaintzen zaie Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala Emateko Taldeen laguntzaz, lehen mailako arretako sarearen baitan.

OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK (aurretiko hitzordua)

012 Infolocal telefonoa

010 telefonoa, iruñeren kasuan

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA INTEGRALA EMATEKO TALDEAK

Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala Emateko Taldeak Nafarroako Gobernuauren doako baliabide bat dira. Nafarroako Berdintasunerako Institutuak kudeatzen du, eta indarkeria-egoeran dauden emakumeei informazioa eta arreta osoa emateko helburua dute, baita haien seme-alabei eta beren zaintzapean dauden bete pertsona batzuei ere. BAITak 169/2008 Foru Legeak onetsitako gizarte zerbitzu orokorren zorroak bermatutako prestaziok dira.

BAITetara, oro har, udaleko gizarte-zerbitzuek, harrera-baliabideek edo beste profesional batzuek bidalita iristen dira emakumeak, edo emakumeek espresuki eskatuta.

Lantalde horietako kideak gizarte-langileak, psikologoak, gizarte-hezitzaileak eta administratzaileak dira. Lantaldeek Emakumeentzako Aholkularitza Juridikoko Zerbitzutik ematen dute aholkularitza. Nafarroako lau BAITek gizarte-zerbitzuen alorrean funtzionatzen dute, Tuteran, Lizarran, Tafallan eta Iruñerriko ipar-mendebaldean eta ipar-ekialdean.

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA INTEGRALA EMATEKO TALDEA (BAIT)

IRUÑERRIKO IPAR-MENDEBALDEKO ETA IPAR-EKIALDEKO INGURUA:

Telefonoak: 948 004 952 / 9480 049 53

TUTERAKO INGURUA: Telefonoa: 948 403 665

LIZARRAKO INGURUA: Telefonoa: 948 553 620 / 948 555 404

TAFALLAKO INGURUA: Telefonoa: 948 703 428





HARRERA BALIABIDEAK: LARRIALDIETAKO ZENTROAK, HARRERA ETXEAK ETA TUTORETZAPEKO ETXEBIZITZAK

Nafarroako Gobernuak doako hiru harrera-baliabide ditu; Nafarroako Berdintasunerako Institutuak kudeatzen ditu horiek, eta beren etxebizitza utzi behar duten eta bestelakorik ez daukaten emakumeei zuzentzen zaizkie, edo arrisku bereziko egoeran daudenei. Hiru baliabideak gizarte zerbitzu orokorren zorroak bermatutako prestaziok dira.

- **LARRIALDI-ZENTROA** Zerbitzu espezializatu honek berehalako eta behin behineko ostatua eskaintzen die emakumeei eta haiekin bizi diren seme-alaba adingabeei. Eguneko 24 ordutan eskaintzen du zerbitzua, urteko egun guztietan eta egonaldia aste betekoa da, hilabete osoz luzatzeko aukerarekin. 112 SOS Nafarroa telefonoaren bidez eskura daiteke, eta lehen lekualdatzea poliziaarekin batera egiten da beti.
- **HARRERA-ETXEA:** Epe ertaineko egonaldietarako egoitza-baliabidea da, emakumeak eta haien seme-alabak errekuperatzeko. Horretarako, arreta emateko eta errekuperatzeko tratamendu osoa eskaintzen du, ostatua, babesa, laguntza eta banakako jarraipena barne hartzen dituena. Egonaldia sei hilabetekoa da, luzatzeko aukerarekin. Honakoen bidez eskura daiteke: larrialdietarako zentroak, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala Emateko Taldeak, epaitegiak, osasun-zentroak eta emakumeen kontrako indarkeriaren prebentziorako eta arretarako beste baliabide espezializatu batzuk.
- **EGOITZA ETXEBIZITZAK:** Egoitza-baliabide honek harrera-etxean emakumeekin eta haien seme-alabekin batera egiten den esku-hartze plan integralari jarraipena ematen dio eta hori finkatzen du. Emakumeen gizarteratzea erraztea dute helburutzat, modu autonomo eta independentean bizi ahal izateko, giro normalizatuan. Gehieneko egonaldia urtebetekoa da, luzatzeko aukerarekin. Egoitza etxebizitzaren bidez eskuratzen da zerbitzua.

INDARKERIA EGOERAN DAUDEN EMAKUMEENTZAKO PRESTAZIOAK ETA LAGUNTZA EKONOMIKOAK

Errenta bermatua

Prestazio ekonomiko bermatua, oinarritzko beharrei erantzun ezin dieten pertsoneri zuzendua. Errenta bermatua jasotzeko, Foru Legearen baldintzak bete behar dira. Oinarritzko Gizarte Zerbitzuaren bidez eskatzen eta izapidetzen da. Emakumeen kontrako indarkeria-kasuetarako, prozedura laburra dago.





Informazio gehiago: Eskubide Sozialetako Departamentua

Telefonoak: 902 165 170 / 848 426 900

Laguntza ekonomikoak

a) Genero-indarkeriaren biktimentzako premiazko gizarte-laguntzak

Eskaera egiteko unean arrisku larrian dauden emakumeei zuzentzen zaizkie, egungo bizitokia utzi behar dutelako eta oinarritzko behar zehatzei aurre egiteko baliabiderik ez dutelako. Prestazio bermatua dira. Urte guztian zehar eska daitezke.

Informazio gehiago: Instituto Navarro para la Igualdad /Nafarroako Berdintasunerako Institutua.

Telefonoa: 848 421 588

b) Baliabide ekonomikorik eza eta enplegua lortzeko zailtasun bereziak egiaztatzen dituzten genero-indarkeriaren biktimentzako laguntzak

Baliabide ekonomikorik eza eta enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituztela egiaztatzen duten emakumeei zuzenduak daude. Besteak beste, baldintza hauek bete behar dituzte: erasotzailearekin ez bizitzea, errenta-maila baxua izatea eta enplegua lortzeko arazoak izatea. Prestazio bermatua dira. Urte guztian zehar eska daitezke.

Informazio gehiago: Instituto Navarro para la Igualdad /Nafarroako Berdintasunerako Institutua.

Telefonoa: 848 421 588

c) Gizarteratzeko Errenta Aktiboa (GEA)

Behar ekonomiko bereziak eta enplegua aurkitzeko zailtasunak dituzten pertsona langabetuei zuzenduta dago. Biziraun duten pertsonak lan-merkatuan sartzeko ibilbide egokitua eskaintzen du. Estatu-mailako laguntzak dira; INEMeko Nafarroako Probintzia Ordezkaritzak kudeatzen ditu, eta Nafarroako Enplegu Zerbitzura bideratzen dira. Ez dira indarkeria-egokian dauden emakumeei zuzendutako laguntza espezifikoak. Urte guztian zehar eska daitezke.





Informazio gehiago: Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzua

Telefonoa: 848 424 400

- d) **Indarkeria-egoeran dauden beste emakume batzuek jaso ditzaketen laguntzak:** Norberaren bizitza eta familia- eta lan-bizitza uztartzeko laguntza ekonomikoak, pertsona helduak, berak bakarrik, adingabeen arduraren eta zaintza dituenen; familia- eta gizarte-integrazioarako laguntzak; tokiko entitateek gizarte-larrialdietarako laguntzak emateko diru-laguntzak, etab.

Informazio gehiago: Instituto Navarro para la Igualdad/Nafarroako Berdintasunerako Institutua

Telefonoa: 848 421 588

H) OSASUN BALIABIDEAK

Lehen mailako arretako osasun-zentroek, osasun-kontsultategiek, sexu- eta ugalketa- osasunaren arretako zentroek, osasun mentaleko zentroek eta Nafarroako ospitale publikoek osasun-arloko jarduketaren protokoloa dute, emakumeen kontrako indarkeria-kasuetarako. Emakumeei dagokien osasun-zentro edo ospitalearen inguruko informazioa hemen eskura daiteke:

SERVICIO NAVARRO DE SALUD/OSASUNBIDEA. LEHEN MAILAKO ARRETA

Pakearen Plaza S/N • 31002 Iruña

Telefonoa: 848 429 300

NAFARROAKO OSPITALEGUNA

Irunlarrea kalea 4 • 31008 Iruña

Telefonoa: 848 422 222 / 848 429 400

REINA SOFIA OSPITALEA

Tarazonako errepidea, 3. km-a • 31500 Tuteran

Telefonoa: 848 434 000





GARCÍA ORCOYEN OSPITALEA

Santa Soria kalea • 31200 Lizarra

Telefona: 848 435 000

I) ENPLEGURAKO BALIABIDEAK

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitatean garatzen diren enplegu-politika aktiboak kudeatzen ditu, eta zerbitzu hauek eskaintzen ditu: lan-merkatuan sartzeko informazio- eta orientazio-zerbitzua, laguntza egokitua, prestakuntza, laneko bitartekotza, programa esperimentalak, etab. Hamar enplegu-agentzia ditu, baita Iturrondo Prestakuntza Zentroa ere.

Informazio gehiago:

NAFAR LANSARE-NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA

Arcadio María Larraona kalea 1 • 31008 Iruña

Telefona: 848 424 400

J) HEZKUNTZA ARLOKO BALIABIDEAK

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamenduak Bizikidetza Aholkularitza dauka, eta unitate hori eskola- eta hezkuntza-esparruko indarkeria-egoerez arduratzen da. Aholkularitzak indarkeriaren prebentzioan egiten du lan, ikastetxeetan, eta bizikidetza hobetzeko tresnak errazten ditu, berdinen arteko zein hezkuntza-komunitatea osatzen duten sektoreen arteko harremani dagokienez. Hala, aholkularitza zuzena ematen die ikasleei, irakasleei eta familiei, doako telefono-linearen eta posta elektronikoaren bitartez.

BIZIKIDETZA AHOLKULARITZA

Telefona: 848 423 215 / 848 426 460

Posta elektronikoa: convive@navarra.es





K) ETXEBIZITZA ARLOKO BALIABIDEAK

Etxebizitza Zerbitzuak, Gizarte Eskubideen Departamenduaren menpekoak, etxebizitza babestuak, errehabilitazio babestua eta laguntzak jasotzeko kontsultei erantzuten die.

ETXEBIZITZA ZERBITZUA

Alondegi kalea 1, 1. pisua 31002 Iruña

Telefonoa: 848 427 570

Gizarte Eskubideen Departamenduak beste entitate bat du, etxebizitza babestuak eskuratzeko izapidetzeaz arduratzeko. Zerbitzua eskuratzeko, lehentasunezko erre-serba bidez denean ere bai, etxebizitza babestuen eskatzaileen erroldan izena eman behar da aldez aurretik.

Erroldan izena emateari, esleipenaren baldintzei eta etxebizitza babestuen laguntzei eta ezaugarriei buruzko informazioari dagokionez, NASUVINSA entitate publikoak (Navarra de Suelo y Viviendas, S. A) hiritarrei arreta ematen die helbide honetan:

NASUVINSA

Sanduzelaiko etorbidea, 8, etxabea 31012 Iruña

Telefonoa: 848 420 600



I. ERANSKINA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN
AGERPENAK ETA FORMAK



Nafarroako emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen arabera, emakumeen kontrako indarkeriaren agerpen gisa ulertzen dira honakoak:

INDARKERIA BIKOTEAN EDO BIKOTE OHIAN



Indarkeria fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa edo sexuala, bikotekide duen edo izan duen gizonak edo berarekin antzeko harreman afektiboak izan dituenak, batera bizi direla nahiz ez, emakumearen kontra erabilitakoa, indarkeriazko ingurunean bizi diren haurren duen eragina barne hartuta.

SEXU-INDARKERIAREN AGERPENAK



Emakume eta nesken kontrako sexu-indarkeriak bere baitan hartzen ditu sexu-erasoa, sexu-abusua, sexu-jazarpena lanean edo hezkuntzan eta sexu-abusua familian, komunitatean, hezkuntzan, lanean eta esparru publikoan.

FEMIZIDIOA



Bikotean edo bikote ohian eginiko homizidioak, eta generoak eragindako diskriminazioan oinarritutako indarkeria erakusten duten krimen batzuk, hala nola sexu-indarkeriarekin loturiko hilketak, prostituzioaren eta emakumezkoen salerosketaren eremuko hilketak, ohoreagatiko hilketak, neskatoen infanzididioa eta ezkonsariagatiko hilketak.

EMAKUMEEN ETA NESKEN SALEROSKETA



Emakumeak eta neskak erakarri, eraman, lekuz aldatu, hartu edo jasotzea, barne hartuta pertsona horien gaineko kontrola trukatzea edo eskualdatzea, mehatxuekin edo indarra edo bestelako hertsamen bideak erabiliz, bahituz, iruzur eginez, engainatuz, botere abusuaren bidez edo egoera ahul batez baliatuz, edo emakume edo nesken gaineko kontrola duen pertsonaren baimena lortzeko dirua edo onurak emanez edo jasoz, helburua delarik sexu-esplotazioa, laneko esplotazioa edo menpekotasunezko ezkontza.

SEXU ESPLOTAZIOA



Emakumeak eta neskak prostituzioan, sexu-morrortzan edo beste sexu-zerbitzu batzuetan aritzetik, ekintza pornografikoak edo material pornografikoak egitea barne, finantza-onurak edo bestelakoak lortzea, bortxaz, mehatxuaz, engainuaz edo nagusitasunezko egoera batez edo biktimaren egoera ahulaz baliatuz.





**GAZTEEGITAN
EZKONTZEA, EZKONTZA
HITZARTUA
EDO BEHARTUA**



Baimen libre eta erabatekorik izan ez duen ezkontza, hirugarrenen arteko akordio baten emaitza izan delako, emakumearen borondatea kontuan hartu gabe, edo mehatxupearan edo bortxaz egiten delako, edo baimena emateko legez aurreikusitako adina baino gazteagoa delako emakumea.

**EMAKUMEZKOEN
MUTILAZIO GENITALA**



Emakumearen genitalak osorik edo zati batean kentzea dakarren edo ekar dezakeen edo haietan lesioak eragiten dituen edozein prozedura, emakumearen edo neskaren baimena izanda ere, berariazkoa nahiz esan gabekoa.

**EDOZEIN BESTELAKO
INDARKERIA MOTA**



Emakumeen duintasuna, osotasuna edo askatasuna kaltetzen duen edo kalte dezakeen indarkeria-mota, nazioarteko itunetan, Espainiako Zigor Kodean edo Estatuko nahiz Foru Komunitateko araudian aurreikusirik dagoena.

Adierazitako indarkeria-motek ondorio gisa izaten dituzte izaera fisiko, psikologiko, sexual edo ekonomikoko kalteak edo sufrimenduak, honakoa kasu hauetatik eratorriak:

INDARKERIA FISIKOA



Emakumearen gorputzaren kontrako indarkeriazko edozein ekintza, kalte fisikoa edo mina eragiten duena edo eragin dezakeena.

**INDARKERIA
PSIKOLOGIKOA**



Edozein jokabide, ahozkoa nahiz ez ahozkoa, emakumearengan oinaze, gutxiespen, bakartze motaren bat edo askatasuna mugatzea eragiten duena, hala nola mehatxuak, derrigortzeak, umilazioak edo laidoak, menpekotasuna eskatzea, jazarpena, hertsapena edo irainak.

**INDARKERIA
EKONOMIKOA**



Emakumearen eta haren seme-alaben ongizate fisiko nahiz psikologikorako baliabideak nahita eta legez justifikatu gabe kentzea, edo bikotearen esparruan bienak diren baliabideak erabiltzeko diskriminazioa.

SEXU-INDARKERIA



Baimendu gabeko edozein sexu ekintza, indarkeria, mehatxua, nagusikeria edo manipulazio emozionala tarteko direla, sexu harremanak erakutsi, ikusi edo izatera behartzea barne.



